

Kontzeju

www.oñati.eus



Berba Oñati



@BerbaOñati



koletina



Oñati Irratib

Oñatika Udal aldizkaria | 2017ko uztaila | 274. zenbakia



DEGIK



ENTZIERROEK

Oñatin ere bada entzierrook pasioz bizi dituenik

HARRAPATUTA



AGINTALDIAREN ERDIAN,
UDAL POLITIKEN INGURUKO
HERRITARREN BALORAZIOA
NEURTZEKO EGINDAKO
INKESTAREN EMAITZAK
AURKEZTU DITU UDALAK



Mikel Biain alkateak eta
inkesta egin duen
Aztiker enpresako
Asier Etxeniketik aurkeztu
zituzten emaitzak

6,6^{koa} jarri diote herritarrek udal gobernu taldeari


- » Oñatin bizi diren 18 urtetik gorako 585 herritarri egin zaie galdeketa, auzo ezberdinetako demografia eta sexuen araberako oreka bilatuta.
- » Udal gobernu taldea gustura dago emaitzekin.

2015-2019 agintaldiaren erdira iritsita, balorazioak egiteko unea izaten da, eta udal gobernu taldeak pentsatu du herritarrei galdetzea izango zela egokiena, udal politikak nola baloratzen dituzten jakiteko. Maiatzeko bigarren hamabostaldian egin zen inkesta, Aztiker Ikerlanean bitartez, bost gai nagusiren inguruan 585 herritarri egindako galdeketa bidez. Ondorengo orrietan daukazue emaitza nagusiak. Udal gobernu taldea gustura herritarrek egindako balorazioarekin, eta dokumentu baliagarria izango dela uste dute, udalaren jarduna hobetzeko.

» UDAL KUDEAKETA

► KUDEAKETA OROKORRA

Herritarrek, bataz beste, 6,6ko nota jarri diote Udalaren jardunari. Oñatiko arazoak konpontzen ari direla uste duherritarren %36,2k. Arazoak nola konpondu jakin bai, baina denbora gehiago behar duela uste dutenak %35,3 dira, eta, aldiz, %16,6k uste du ez dakiela nola konpondu Oñatiko arazoak.



► KUDEATZEKO MODUA

Zintzotasuna (6,24), gestiorako gaitasuna (6,22), herritarren arazoekiko hurbiltasuna (6,17) eta lidergoa izateko gaitasuna (6,07) dira puntuaziorik altuena jaso dutenak, eta puntuaziorik baxuena berriz, akordioak lortzeko gaitasunak (5,69).

► GAI ZEHATZEN KUDEAKETA

Gai konkretuen inguruko kudeaketa edo gestioari buruz galdetuta, hauek herritarren balorazioak: Euskararen sustapena (7,7), Berdintasuna (7,6), Parte-hartzea (6,8), Kudeaketa ekonomikoa (6,7), Hondakinen kudeaketa (6,6), Gazte politika (6,6), Enplegu sustapena (6,4) eta Auzoak (6,0).

► OPOSIZIOAREN IRUDIA

Oposizioaren jardunaz ere galdetu zaie herritarrei inkestan. Ildo horretan, herritarren %41,5ek uste du udal gobernari kritika eta oztupoak jartzen dizkiola oposizioak, eta %17,3k uste du Oñatiko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela. (Bi aukerak hautatzeko bidea eman du Aztikerrek). %42,3k ez dio erantzun galdera honi.

Ildo horretan, %23,2k uste du EH Bildu dela herriko arazoei irtenbidea emateko alderdi egokiena, eta %12,2ren ustez EAJ. %30,3k ez du alderdi bat bera ere egoki ikusten, eta %33,5k ez du erantzun galdera hau.

» HERRITARREN KEZKAK ETA OÑATIK DITUEN ARAZO NAGUSIAK



Herritarrek dituzten kezka nagusiei buruz eta, beraien ustez, Oñatik dituen arazo nagusiak zein diren ere galdetu zaie inkestan.

Bateko eta besteko erantzunak kontuan hartuz, herritarren kezka nagusiak hiru eremutan sailka daitezke: lan merkatuari eta ekonomiari lotutakoak (%28 inguru), mugikortasunarekin (aparkaleku falta eta trafikoa) lotutakoak (%21) eta adineko pertsonen arazoak (%10).

Zehazki, Oñatiko arazo garrantzitsueni buruz galdetuta, aparkaleku falta (%16,5), garraio publiko eskasa (%10,4), lan merkatuari lotutako arazoak (%9,5) eta gazteen zailtasunak (%7,8) dira nagusiak. Herritarren kezka berriz, lan merkatua (%21,5), aparkaleku falta (%15,6), eta adineko pertsonen arazoak (%9,7).

ESKAINZA **90€** **BEREZIA**

Guztia barne

EZKONTZETAN Etxea-Aundi

2017 urtean

Informazio gehiago,


Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

» MUGIKORTASUNA


Orokorrean, balorazio ona jaso dute mugikortasunaren alorrean udal gobernu taldeak hartutako neurriek. Hala, inkestan neurtu diren zazpi neurrietatik bostek 7 puntutik gorako balorazioa jaso dute: *Eskolara oinez* egitasmoak (7,8), bidegorri sareak (7,6), *Herribusak* (7,5), *Auzotaxiak* (7,4) eta *Atzeko Kalearen oinezkotzeak* (7,1). Aldiz, *Txaketua* edo *Zazpibidietako bidegurutzea* oinezkotezko erabakiak (4,8) ez du azterketa gaintitu, eta *TAO/OTA sistemak* (5,4) ozta ozta.

Azpirarratzekoa da, bestalde, *Auzotaxi zerbitzua* oso jende gutxi (%40tik behera) ezagutzen duela oraindik.



» HONDAKINAK

ZER MODUZ MOLDATZEN ZARA HONDAKIN BILKETA SISTEMAREKIN?



Gaur egun indarrean dagoen hondakin sistemaz galdetuta, %79,3k dio ondo edo oso ondo moldatzen dela, eta %9,5ek gaizki edo oso gaizki.

Ildo berean, %48,9k uste du gaur egungo sistemak ondo funtzionatzen duela, eta %30ek dio sistema ondo dagoela, baina egokitzapenak behar dituela. Bestalde, %21,1ek dio sistema aldatu egin behar dela.

Sistema aldatzea eskatzen dutenen artean, %53,9k (Oñatiko herritarren %10,6) bost edukiontziko sistemaren aldeko hautua egiten du, eta %28,7k (herritarren %5,6) esan du nahiago duela edukiontzi sistema (zenbat edukiontzi zehaztu gabe); %5,2k giltza

ZEIN SISTEMARA ALDATUKO ZENUKE?



edo txip bidezko edukiontzi sistema nahi luke, %3,5ek sistema mixtoa (errefusa eta organikoa atez-ate, eta gainerakoa edukiontzi bidez), eta %2,6k lur azpiko konte-nedoreak.

Gaur egungo atez-ateko sistemari egin beharreko egokitzapenez galdetuta, hauek dira erantzunak: haizeak ontziak ez eramateko neurriak (%18,6), edukiontzi aukera ere egotea (%17,2), frakzioak ateratzeko egunak (%15,2), arauak zorrotzago jokatzea (%9,7), herritarrek kontzientziatzea (%7,6), ordutegiak malguagoak izatea (%5,5), kaleetako garbitasuna mantentzea (%4,8), ontziak apurto egiten dira (%3,4)...



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERRAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DI SEINIGTZAILE ETA MONTATZAILER
SERBIDOREAK, KOMANAK eta ASKEZ GENGU
ORLANTIA 12 B 4 esk. - 20080 ORLANTIA - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



MIKEL BIAIN / Alkatea

Herritarrei entzutea eta beraiengandik ahalik eta gertuen egotea da gure asmoa

Herritarrengandik ahalik eta gertuen jardutea izan da beti EH Bilduren asmoa (izan parte hartze prozesuak, izan bilera irekiak, izan alkatearekin egoteko asteroko hitzordua...), eta inkesta hau ere norabide horretan kokatu behar dela azaldu du Mikel Biain alkateak; "herritarrei entzutea eta bidea elkarrekin egitea da gure nahia".

Alkateak esker ona adierazi nahi izan die inkestari erantzuteko tarte hartu duten herritarrei, "eskanitako denboragatik, eta erakutsitako jarrera erakitzaileagatik".

Inkestaren emaitzekin, oro har, gustora daudela adierazi du alkateak. "Zenbait arlotan auto-kritika egiteko aukera ere ematen digu, eta, azken batean, udalaren jarduna hobetzeko baliagarria izango da".

Emaitzen irakurketa sakona egin behar dute oraindik, baina herritarren balorazioak eta kezkek ikusita, eragin beharreko hiru arlo nabarmendu ditu alkateak (aparkalekuak, enplegua eta hirugarren adina) eta epe motz-ertainerako proposamen zehatzak iragarri ditu.


» IGERILEKUA

Kiroldegia erabiltzeko ohituraz eta, zehazki, igerilekuan inbertsiorik egitea beharrezkoa ikusten ote duten ere galdetu zaie herritarrei. Ildo honetan, %69,1ek uste du igerilekua berritu egin behar dela. Aipagarria da, gainera, erantzun hau eman dutenen artean %29,6 ez direla ohiko erabiltzaileak.


Aldiz, galdera berari erantzunez, %22,3k uste du beste zerbaitetan inbertitu beharko litzatekeela diru hori, igerilekuan gastatu ordez.

Zertan inbertitutko luketen galdetuta, hona erantzunak: kiroldegia berritu (%40,6), kultur eskaintza eta kultur azpiegiturak (%11,6), estali gabeko igerilekua (%8,7), laguntza sozialak (%7,2), umeentzako parkeak (%7,2), igerileku berria beste lekuren batean (%7,2), orokorrean herrian (%4,3).

IGERILEKUA BERRITZEN INBERTITU BEHAR DA ALA BESTE ZERBAITETAN?



ZERTAN BESTE INBERTSIOA?



» KOMUNIKAZIOA

Udal informazioa eskuratzeko medioen inguruan ere galdetu zaie herritarrei. Ildo honetan, Kontzejupetik aldizkaria da erabiliena eta baloratuenetarikoa. Gutxien ezagutzen direnen artean berriz, Boletin elektronikoa eta *Berbia Oñatin* Facebook orriak dira. Hala ere, erabiltzaileen artean azken bi medio hauek dira baloratuenak, eta, oro har, Oñati Irratiak, udalaren web orriak eta prentsa arruntak ere 7tik gorako balorazioa

jaso dute.

Herritarren %53k uste dute nahiko informatuta daudela, %14,7k erdipurdi, %19,8k gutxi informatuta, eta %9,3k oso informatuta.

Udalaren irudi berriaz ('Dabilen Herria') galdetuta, %36,4k ezagutzen dute, eta uste dute ondo dagoela. %17,2ri ez die ezer esaten, eta beste batzuei aniztasuna (%7,6), dinamismoa (%6,2), aurrera goazela (%6,2)...

» TXOSTENA ESKURAGAI

Udalaren webgunean (www.oñati.eus) dago ikusgai Aztiker Soziologia Ikerguneak udalarentzat egin duen inkestaren ondorioak jasotzen dituen txostena.



OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeren eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Hamar urte, entzierroetan hutsik egin gabe

» Jose Mari Arza
oñatiarrak Santo
Domingo aldapan
biziko ditu entzierroak
aurten ere


Gaur (uztailak 6) lehertuko da festa Iruñean, eta bihar izango da aurreneko entzierroa, eta hantxe izango da beste urte batez (hamaikagarrena jada) Jose Mari Arza oñatiarra.

Goizeko 5ak aldera irtengo da etxetik. Iruñean lo-kuluxka txiki bat egin, eta 7etarako egongo da Santo Domingo kalean, entzierroa korritu eta zezenak ahalik eta gertuen sentitzeko asmoz. Entzierro ostean zerbait gosaldu, eta buelta etxera. Eta halaxe zortzi egunez, uztailaren 14ra arte.

“Ezin naiz hil entzierroak probatu barik” esan ohi zuen Jose Mari telebistaz ikusten zituenean; “baina ez nuen uste horrenbeste engantxatuko nindutenik”. Aita ere oso zezen zalea zen; askotan ikusten zituzten zezenketak telebistaz, eta hortik datorkio, beharbada, zaletasuna.

ESTAFETA KALETIK SANTO DOMINGORA

Estafeta kalean egin zituen aurreneko entzierroak, baina berehala ikusi zuen hura ez zela bere lekua. “Jende-pilaketak, bultzakadak... Gainera, txiki



samarra naizenez, lurrean amaitzen nuen zezenak ikusi ere egin gabe”. Beraz, ibilbidean atzera egiten hasi zen, Santo Domingo kalera iritsi arte, eta hortxe hasi zen entzierroaz gozatzeko. “Santo Domingok dena dauka; santuaren irudia jartzea, kantuak, jende artetik tarteka abesten diren jotak... Berezia izaten da”.

Entzierroa ezagutzen duenak badaki oso berezia dela Santo Domingo kalea. Oso leku esplosiboa da, eta oso zaila korrikalarietzat. Kortatik irten berriak, zezenak abiada bizian doaz eta, gainera, aldapan gora da kalea. “Lehenengo urteetan zezenak pasatzen ikustera mugatu nintzen, nolabait esateko, eta, poliki poliki, hango beteranoei aholkua eskatuta, hobeto kokatzen eta zezenak gero eta gertuagotik sentitzen ikasi dut” dio Jose Marik, hitz eginda bakarrik emozioak bor-bor jartzen zaizkiola. “Zezenak irten orduko hasten naiz korrika. Zezenak hurbildu ahala, alboetara zabaltzeko joera dauka jendeak, eta, beraz, gakoa da ahalik eta denbora gehien irautea kalearen erdi aldean, zezenen hatsa gertutik sentitu nahi baduzu. Bertan egoten garen korrikalariok ondo ezagutzen dugu elkar, eta bata bestearen errespetatzen saiatzen gara”.

“Beldurra pasatzen da, bai” aitortu digu Jose Marik, “baina zezenak gertutik sentitzea oso berezia da, adrenalina-deskarga ikaragarria”.


Zorionez, orain arte ez du sekula ezbehar larririk izan, erorketa eta kolperen bat edo beste salbu. Aurten ere prest eta gogotsu dagoela aitortu digu, entzierroa bizi eta gozatzeko irrikaz. Zorte on!

JOSE MARI ARZA



“Entzierroak telebistaz ikusten nituenean, esaten nuen ezin nintzela hil hori probatu barik; baina ez nuen uste hainbeste engantxatuko nindutenik”

“Santo Domingo aldapan disfrutatzen dut benetan entzierroaz. Oso esplosiboa da, zezenak oso azkar datoz, baina ikasi egin dut bertan korri egiten”



“Zezenak hurbildu ahala alboetara zabaltzen da jendea; beraz, kalearen erdian ahalik eta gehien irautea da gakoa, zezenen hatsa gertutik sentitu nahi baduzu”



“Euskal presoen auzian ere ari gara lanean, isilean bada ere”

“ MANUEL LEZERTUA / Arartekoa

Arartekoa edo herritarren defendatzailearen instituzioa izan zuten aztergai Oñatiko Lege Soziologia institutuan ekainaren 7tik 9ra burututako *workshop* edo mintegian, eta Manuel Lezertua (Bilbo, 1957) Euskadiko Arartekoa bertan zela baliatu genuen erakunde hau gertuagotik ezagutzeko.

‘*XXI Century Ombudsman: A Guarantor of Democracy*’ zuen izenburua, Oñatin eman berri duzun hitzaldiak. Zein mezu eman nahi izan duzu?

Gaurko gizarte modernoan sortzen diren arazoaren aurrean (krisi ekonomiko eta soziala, inmigrazioa, internet, familia eredu berriak, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko gogoia...) Arartekoak ba ote duen tresnarik eta ahalmenik herritarren eskubideak eta benetako demokrazia babesteko. Horren inguruan egin dugu gogoeta.

Eta ba al du ahalmenik?

Nik uste dut baietz. Epaitegi batekin alderatuta, Arartekoak askatasun eta malgutasun edo

flexibilitate handia du bere lana egiteko, eta horri eker modu askotan eragin dezake problema ezberdinen aurrean. Beraz, nik uste dut erakunde baliogarria dela, batez ere malgutasuna daukalako.

Euskal Herritik urruti eta, zenbait kasutan gaixo dauden euskal presoen gaia ere atera da mahai gainera. Espainiako herri defendatzailearekin tira-birak izan ohi dituzuela esan duzu. Nola ikusten duzu gaia?

“

Tira-birak izaten ditugu Espainiako defensorearekin. Uste dugu ez duela nahikoa egiten espetxeetako egoera latzak bideratzeko

Egin al dezake ezer Arartekoak gai horretan, bere eskumenetatik kanpo egon arren?

Gauza asko egiten ditugu arlo horretan ere, baina gehienetan ez dugu esaten, konpetentzia edo eskumenen arazoa daukagulako. Beraz, isilean egiten dugu.

Batez ere, gaixo dauden presoek kasuetan zentratzen ari gara, espetxetik atera eta ospitaletan artatu ditzaten. Oso kezkatuta gaude gai honekin, eta ari gara irtenbide bat eman



Nazioarteko 22 adituk parte hartu zuten herri defendatzailearen inguruko mintegian Oñatiko Lege Soziologia Institutuan

nahian, baina egia da, baita ere, ez dugula nahi beste aurrera egiten.

Ildo horretan, egia da tirabira ugari izan ditugula Espainiako defensorarekin. Uste dugu ez duela nahikoa egiten espetxeetan ematen ari diren egoera latz horiek bideratzeko.

Ofizioz aritzen zarete, ala sendeek eskatuta?

Familiak etortzen dira askotan, eta gu saiitzen gara Espetxeetako Zaintza epailearekin hitz egiten, eta gauzak giza eskubideen ikuspuntutik planteatzen.

Kontuan hartu behar da, gainera, Osakidetza espetxeetako osasunaren eskumena daukala eta, beraz, hitzarmen orokor bat egiten ere saiatu gara euskal preso guztientzat. Baina gauza hauek astiro joaten dira. Hala ere, ez dugu etsiko.

Arartekoa oraindik ezagutzen ez duenak zer jakin beharko luke instituzio honi buruz?

Administrazio publikoaren aurrean herritarren eskubideak defendatzea da Arartekoaren zeregin nagusia. Herri administrazioaren baten (Jaurlaritza, diputazioak, udalak, enpresa publikoak...) jarduera oker edo irregular baten ondorioz kalte-tua izan dela uste duen edozein herritarren kexak eta kontsultak jaso eta bideratzeko dago.

Hiru hiriburuetan ditugun bulegoetara etorrita, korreoz edo telefonoz jar daitezke gurekin harremanetan. Edozein modutan, www.ararteko.net atarian dago informazio guz-

tia. Zerbitzua doakoa da.

Iaz 11.000 kexa edo kontsulta jaso zenituzten, 2015ean baino %25 gehiago. Zer esan nahi du? Batetik, herritarrek konfiantza dutela gure erakundearengan. Badakite etortzeko aukera dutela, erraza dela, eta atenditu egiten ditugula kexa guztiak.

Bestetik, garbi ikusten da krisi ekonomikoaren eragina ere. Gaur egun jende asko bizi da DBE/RGIari eta bestelako laguntza sozialei esker, eta horien tramitazioak eragiten ditu kexa gehien (%34).

Zenbat denbora behar izaten duzue erantzun bat emateko?

Gure helburua izaten da ez luzatzea sei hilabete baino gehiago, baina ez dugu beti lortzen. Askotan dokumentazioa eskatu behar izaten diogu dagokion administrazioari, eta horrek atzeratzea eragiten du. Beste batzuetan, berriz, nahikoa izaten da dei bat egitea arazoa bideratzeko. Iaz aztertutako kexa guztien %46an antzeman genuen administrazioaren akats edo jokabide okerren bat.

Baina Arartekoaren ebazpen edo erabakiak ez dira lotesleak. Zer gertatzen da betetzen ez badira?

Gehienetan (%93 inguru) bete egiten da guk esandakoa. Eta, bestela, insistitu egiten dugu, dagokion sailburuarekin berba eginez, edo legebiltzarrerara joz. Bestela, epaitegietara jotzeko aukera geratzen zaio herritarri eta, gehienetan, arrazoia



Administrazio publikoaren (Eusko Jaurlaritza, diputazioak, udalak...) jarduera oker edo irregular baten ondorioz kalte-tua izan dela uste duten herritarren kexak eta kontsultak bideratzen ditu Arartekoak. Dohainik da. Iaz 11.000 kexa jaso genituen



ematen digu epaileak.

DBE/RGIa izaten da kexa gehien eragiten duena. Zein dira bestelako kexa-iturriak? Osasuna (ospitaleko arreta...), Hezkuntza (bekak, autobus eta jantoki zerbitzuak, eskola aukeratzeko eskubidea...), Ertzantza eta Udaltzaingoa (komisaldegiko tratua, trafikoinak...), hizkuntza eskubideak (administrazioan euskaraz aritzeko aukerarik ez izatea...), Ingurumena (batez ere zarata arazoak...), funtzio publikoa...

Herritarren kexak atenditzeaz gain, politika publikoaren inguruko txostenak ere egiten ditu Arartekoak. Besteak beste, energia eredu jasangarriago baten aldeko txostena egiten ari zarete. Zertan da?

Iaz eman genituen gomendio orokor batzuk pobrezia energetikoaren inguruan. Kontuan hartuz 200.000 inguru pertsona daudela Euskadin, berotzeko ahalmen ekonomiko barik, hainbat neurri jarri ditugu mahai gainean arazo horri aurre egiteko. Eta orain txosten bat ari gara osatzen unibertsitatearekin batera, energia eredu jasangarriago baterantz trantsizioa egiteko gomendioekin.

Beste txosten bat ari gara prestatzen ospitaleen egoera aztertuz irisgarritasun edo akzesibilitate mailan, eta beste bat familia bitartekotzaren ingurukoa. Proiektu asko ditugu esku artean, baina, tamalez, gure baliabideak mugatuak dira.

fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Romun eta sukaldeetako erreformak
- > Rzulejoen salmenta
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

etxebizitza osatzeko behar duzun guztia

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI



Foto portada: D. Y. Semnand

50 putre harrapatu eta markatu egingo ditu diputazioak Belarren

» POCTEFA programa europarraren baitan, Gipuzkoako saiek ze portaera duten eta nora zabaltzen diren jakitea da helburua

» Uztailaren erdialdera egingo dira markaketak Belar inguruan. Aurretik, tranpa bat prestatuko dute basozainek, eta jatekoa jarriko dute bertan, bizpahiru astez, putreak erakartzeko

Uztailean zehar Gipuzkoako Foru Aldundiko basozainek kaiola-tranpa bat jarriko dute Belar inguruan, putreak (sai arreak) harrapatu eta markatzeko asmoz, gero beraien jarraipena egin ahal izateko.

Horretarako, harrapaketak egin aurretik, jatekoa jarriko dute tranpa inguruan bi edo hiru astez, putreak bertara

caravanas  oñate



• Galdaragintza - Caldereria
Oladul zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• Bizikletak
• Erremolkeak
• Txirrindularitzarako osagarriak
Oladul zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



Argazkikoa bezalako kaiola-tranpa bat jarriko dute saiak harrapatzeko, eta bertan markatu ondoren aske utziko dituzte berriz ere.

jeisten ohitu daitezten. “Gure asmoa da, bi edo hiru egunetan 50 bat sai harrapatzea bertan” azaldu digu Mikel Olano Foru Aldundiko basozainak. “Han bertan egingo ditugu hegaztien markaketa lanak. Kodigo bat duen koloredun txartel eta eraztun bana jarriko diegu, eta bide batez, odola atera eta hegaztien azterketa biometrikoa egingo dugu”.

Uztaila bukaera arte egongo da saiak harrapatzeko tranpa Belarren, eta, beraz, jendeari lasai egoteko deia luzatzen die Olanok. “Ekainaren 6an bilera irekia egin genuen Oñatin, putreak markatzeko proiektu honen nondik norakoak eta helburuak azaltzeko, baina inork zalantzaren bat baldin badauka, dei dezala udaletxera edo diputaziora, eta emango zaio informazio guztia”.

PROGRAMA EUOPARRA

Putreak markatzeko ekintza hau POCTEFA programaren baitan ulertu behar da. Euro-patik datorren proiektu bat da eta Pirinioetako biodibertsitatea kontserbatzen lagundu nahi du, hegazti nekrofagoen (hildako animalien haragiaz elikatzen direnak) populazioak kudeatzeko marko tekniko eta koordinatu bat eskainiz.

POCTEFA programan Pirinioen alde bietako lurraldeek parte hartzen dute: Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Frantziako hegoaldea. Eta helburua da denak elkarrekin aritzea, eta neurri amankomunak aplikatzea hegazti nekrofagoen (sai arrea, sai zuria, ugatza, miru gorria...) populazioen kudeaketa egokia egiteko, hegazti hauek egiten duten ekozerbitzu inportantea

(Hurrengo orrira)



Putre-kumeen markaketa habietan egiten da

Belarren markatuko dituzten 50 putre helduez gain, beste 10 kume (90-100 egun artekoak) ere markatu dituzte, horietako 4 Oñatin, Orkatzategin, eta besteak Jaizkibelen. Putre-kumeen markaketa habian bertan egiten da eta teknikoki delikatuagoa da. Bizpahiru hilabete lehenago hasten da lana. Kabi akzesibleenak non dauden ikusi, eta kumeen jarraipen zorrotza egiten da; ez da komeni kumeak oso hazita egotea, bestela salto egiten dutelako kabitik. Tuntu handiz jokatu behar da. Kabira jeitsi, kumea hartu, gora igo, markatu eta berriz ere kabian uzten da sai kumea. Halako lanetan aditua den Nafarroako basozain talde batek egiten ditu markaketa lanak.



“Pirinioen alde bietako herrialdeak elkarlanean aritzea da POCTEFA programaren helburua, hegazti nekrofagoen kontserbazioa ziurtatu eta abeltzantzarekiko bizikidetzatza sustatzeko



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SU. VALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIEN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labean sartu



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

balioan jarriz, eta mendiko abeltzantzarekiko bizikidetzaz sustatuz.

Horretarako, lehenengo eta behin informazioa behar da; hegazti mota hauen portaera eta ohiturak ezagutu behar dira (zein eremutan mugitzen diren, hilkortasun tasa...) eta hori da, hain justu, hegaztiak markatzearen arrazoia.

SAI ARREA, SAI ZURIA, MIRU GORRIA ETA UGATZA

Goian esan bezala, 50 putre heldu (5 urtetik gorakoak) markatuko dituzte Belarren datozen egunetan. Baina ez dira bakarrak izango. Duela hiru aste, 10 sai-kume (90-100 egun artekoak) markatu zituzten; 6 Jaizkibel aldean, eta beste 4 Oñatin, Orkatzategi inguruan.

Putreez gain, beste hegazti nekrofago batzuk ere markatu dituzte POCTEFA programaren barruan, Mikel Olanok azaldu digun moduan. "Hiru miru gorri (*milano real*) kume eta bi sai zuri (*alimoche*) kume markatu ditugu, azken hauek Oñatiko eremu barruan. Eta ugatz bat (*quebrantahuesos*) ere badugu markatuta lehendik".

Putreen kasuan, koloredun txartela jartzen zaie hegoetan, teleskopio bidez jarraipena egin ahal izateko moduan. Miru gorriei eta sai zuriei aldiz, GPSa jartzen zaie. "Bakanak direnez, GPSa jartzeko aukera dago, baina putreen kasuan garestiegia izango litzateke denei GPSa jartzen hastea" dio Olanok.



MIKEL OLANO / Foru Aldundiko basozaina

“Saiek eta beste hegazti nekrofagoek ikaragarritzko zerbitzua egiten digute, mendia garbi mantentzen dutelako.”

“Hegaztiak ganaduaren beharra dute bizirauteko, eta guk beraien beharra daukagu, mendia garbi edukitzeko. Beraz, elkarbizitzen ikasi beharra daukagu.”

HEGAZTI NEKROFAGOEN EKOZERBITZUA

Mendialdean hildako abereen haragia jaten dute hegazti nekrofagoek, eta, beraz, funtzio garrantzitsua betetzen dute mendia garbi mantendu ahal izateko. Eta hori balioan jartzea da POCTEFA programaren helburuetako bat, Olanok esan digun moduan. "Jendeak jakin

Gaur egun 220 bat putre-bikote dago Gipuzkoan. Horietatik 65 bat Oñatiko inguruetan

behar du hegazti hauek izugarritzko zerbitzua egiten dutela. Bestela, arazo handia izango genuke (gaitzak, izurriteak...) hildako ganadua mendian geratuko balitz".

Garbi dago, beraz, hegazti mota honen beharra daukagula mendia garbi mantetzeko, baina egia da, era berean, hegaztiak ganaduaren beharra ere badaukatela bizirauteko, eta, beraz, batak bestearen beharra dukanez, elkarbizitzen ikasi beharra daukagula, eta hori ere bada POCTEFA programaren helburua.

ABELTZANTZAREKIKO BIZIKIDETZA SUSTATU

Hegazti nekrofagoen eta ganaduzaleen arteko elkarbizitza sustatzea da POCTEFA programaren beste helburuetako bat, eta ildo horretan, zeregin inportantea dagoela uste du Olanok, gaur egun giroa oso ozpinduta dagoelako. "Egia da, zenbait kasutan, hegaztiak bizirik dauden animaliei egin dietela eraso, mugitu ezinik zeudelako erditze txar baten ondorioz, edo trabatuta zeudelako. Hori hala da, eta ulergarria da abeltzainen haserrearen erasoaren aurrean. Beraz, halako kasuak gertatzen direnean, administrazioak konpentsatu egin behar ditu ganaduzaleak, eta eman dira urratsak zentzu horretan".

Zoritxarrez, ordea, jarrerak muturrera eramateko joera daukagu herri honetan, eta gai honen inguruan ere horrela gertatzen da, Olanoren ustez.

COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Arno Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oñati@coinbroker.eus

🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

Amalia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Itxaskarritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaliagartua@gmail.com • Oñati

“Btzuek (ganduzaleek) esaten dute erasoak orokortu egin direla, eta besteek (ekologistek) ez dela erasorik gertatzen. Ez bata, eta ez bestea. Gauzak esan behar dira diren bezala. Eta garbi dago, ganadua kanpo librean dabilenean, hegaztiak ez dietele eraso egiten”.

“Azken batean” jarraitzen du Olanok, “garbi dago elkarren beharra daukagula eta, beraz, goazen denok batera, elkarlanean, guztion onurak bilatzera. Horixe da programa honen helburua”.

Gaur egun 220 bat putre bikote egongo dira Gipuzkoan (horietatik 60 bat Oñatiko inguruetan). Horiei populazio flotantea gehitu behar zaio (solteroak, sub-adultoak...). Egia da azken urteotan asko hazi dela saien populazioa gure lurraldean, baina gauzak bere kontestuan aztertu behar direla uste du Olanok. “Egia da, orain dela 40 urte baino askoz putre gehiago dagoela; baina, egia da, baita ere, urte askotan egur handia eman izan zaiela, ia ia desagerrarazi arte. Zorionez, azken urteotan egin den lanari esker, egoerari buelta ematen ari zaio, espezie asko errekupe-ratzen ari dira, eta ohitu egin beharko dugu beraiekin bizi-

Jarraipena denon artean

Hegaztien markaketa egin ondoren, jarraipena egin behar da. Foru Aldundiko basozainek behaketa sistematikoak egingo dituzte, baina helburua da herritar guztiei ematea parte hartzeko aukera. Horretarako, fitxa batzuk jarriko dituzte herritarren eskura (aurrerago zehaztuko dute non) eta, beraz, helburua da markatutako hegaztiren bat ikusten duen edozein herritarrek horren berri ematea fitxa bat



tzen. Hau da bioaniztasuna”.

Olanoren ustez pribilegio bat da era honetako hegaztiak (sai arrea, sai zuria, miru gorria, ugatza...) gure inguruan izatea. “Europako gainerako herrietan ia ez dago halako hegaztirik, eta, beraz, gure obligazioa da beraiek babestea. Horretarako datoz dirulaguntzak Europatik, eta guk egin behar duguna da Pirinioetako alde bietako herrialdeekin elkarlanean eta modu koordinatuan lan egin, eta horixe da POCTEFaren helburua. ■



Oñatin pribilegiatuak gara

Oñatin ohituta gaude putreak edo sai arreak ikusten, baina kontuan izan behar dugu Europako herrialde askotan ia ez dagoela halako espezierik. Oñatin, zorionez, daukan hedaduragatik eta habitat mota ezberdinak (goiko larreak, basoak, landa zabalak, arkaiztegiak, errekek...) kontserbatzen dituzenez, Europan oso urriak diren hegaztiak (sai zuria, miru gorria, ugatza...) gure artean ikusteko aukera dugu, eta, alde horretatik, pribilegiatuak gara Olanoren ustez

KANTUE

Artisau Zapataria

Kale Barria, 30 · kantue30@gmail.com

Tel. 679 724 953

'HOTZ-OÑATI' izena duen etxe bat dago Grezian

» 'Himaya' proiektuaren bidez, errefuxiatuei laguntzeko etxebizitza bat babesten du Hotz-Oñati taldeak. » Asilo eskaerak bideratzen diren bitartean, egoera latzenetan dauden pertsonen laguntzen die Himaya-k, etxebizitzak alokatuz



PISO-5
(Hotz-Oñati)
Sukalde-jangela
2 logela
Bainugela bat
Balkoia



Emakume siriar bat eta bere hiru seme-alabak bizi dira une honetan Hotz-Oñati etxean



'Hotz-Oñati' izena duen etxe ko eta bertan bizi den familiaren argazkiak

Asilo eskaerak bideratzen diren bitartean, egoera latzenetan dauden errefuxiatuei laguntzea da *Himaya* proiektuaren helburua, errefuxiatu eremuetatik atera eta duintasunez bizi ahal izateko etxebizitzak alokatuz.

Greziako kanpalekuetan bolondres lanetan aritutako hiru emakumek sortu zuten orain dela urtebete *Himaya* elkarteak ('Babestu' esan nahi du arabieraz). "Kanpalekuek ez dituzte gutxieneko baldintzak betetzen, ez osasun aldetik, ez garbitasun aldetik, ez eta elikadura maila ere. Guk oso ondo dakigu hori, bertan egon ginelako. Beraz, gure asmoa da errefuxiatuentzako etxebizitzak alokatzea, kanpalekuetatik irten eta duintasunez bizi ahal izan daitezen asilo eskaerak bideratu bitartean" azaltzen dute *Himaya* elkarte ko kideek beraien webgunean (www.himaya.es).

Errefuxiatuekin lanean ari diren Greziako bolondresen bitartez alokatzen dituzte etxe-



MEDITERRANEAR MODA

dunadu

igor



Ramon Irizar, 2
Tel. 943 08 81 84

www.candeluka.com
f Candeluka



bizitzak, herritarrengandik jasotako diru-ekarpenekin. Etxe bakoitzaren hileko alokairuak 250 euro inguru balio du. Eta, jakina, zenbat eta diru gehiago jaso, orduan eta etxe gehiago alokatu ahal izango dituzte, eta jende gehiagori lagundu. Une honetan 15 etxebizitza dituzte alokatuta, eta horietako bat 'Hotz-Oñati' izenez bataiatu dute.

'HOTZ-OÑATI' ETXEA

'Hotz-Oñati' taldeko kideei oso interesgarria iruditu zitzaizen 'Himaya' proiektua, eta deialdi zabala egin zuten dirulaguntza biltzeko asmoz. Oraingoz 45 lagun dira, Hotz-Oñatiren bitartez *Himaya* proiektuarekin kolaboratzen dutenak.

Hilean euro bat jartzen du bakoitzak (behin egiten dute urte osoko ekarpena, 12€), eta Oñatiko taldearen inplikazioa eta laguntza eskertu nahian, Himaya taldeko arduradunek 'Hotz-Oñati' izena jarri diote Greziako etxebizitzetako bati.

Une honetan, Siriako familia bat bizi da bertan (ama eta 10 urtetik beherako hiru seme-alaba). Alemanian dagoen aita-

HILEAN EURO BAKARRAGATIK, ALOKAIRUA ETA JANARIA ORDAINTZEN LAGUNDUKO DUZU

'Hotz-Oñati' taldearen bidez gaur egun 45 pertsona ari dira kolaboratzen 'Himaya' proiektuarekin. Urtebeteko elkarlanaren ondoren, proiektuak oso ondo funtzionatzen duela ikusita, deialdi berria egitea erabaki du Hotz-Oñatik, kolaboratzaile gehiago batu, eta errefuxiatuentzako etxebizitza gehiago alokatu ahal izateko. "Komunikabideetan agertu ere ez dira egiten jada, baina milaka errefuxiatu daude oraindik kanpalekuetan, oso bizi-baldintza kaskarretan, eta beharrezkoa da laguntza oraindik ere", adierazi dute.

Himaya proiektuarekin kolaboratu eta errefuxiatuentzako etxebizitzak alokatzeko hilean euro bat jartzea eskatzen da (12 euro urtean). Lagundu nahi duenak Laboral Kutxako (IBAN ES 93 3035 005 3500 51070869) kontu zenbakian egin dezake urteko diru ekarpena, 'Himaya' kontzeptua eta norberaren emaila adieraziz, edo, bestela, Hotz-Oñati taldeko kideekin harremanetan jarri.



rekin elkartzeko baimenaren zain daude.

Arrisku egoeran dauden erre-fuxiatuek dute lehentasuna Himaya-koen etxebizitzetan: haurdun edo ume txikiekin datozen emakumeak, adingabeak, adineko pertsonak, desgaituak... Etxebizitzen alokairua eta mantenuarekin laguntzeaz gain, asilo eskaerak bideratzeko laguntza ere eskaintzen die *Himaya* elkarteak.

Hotz-Oñati taldearen bidez 45 pertsona ari dira kolaboratzen Himaya proiektuarekin. Orain deialdi berria egin dute jende gehiago batzeko

Hotz-Oñatiko kideek oso positiboki baloratzen dute *Himaya* elkartearen egiten ari den lana. "Oso serioak dira. Gure diruekin egiten duten lanaren txostena bidaltzen dute hilero" adierazi digu taldeko kide batek. "Elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu, eta deialdi berria egingo dugu datozen egunetan, jende gehiago batzeko proiektura".

Bi oñatiar eta beste 80 gudari omendu dituzte

Gernikako kanposantuko hobi komun batean lurperatuta daude

Gernika-Lumoko hobi komun batean lurperatuta dauden 82 gudari omendu zituzten ekainaren 17an, tartean bi oñatiar: Nikasio Letamendi (Oñatin jaio eta Bergaran bizi izan zena) eta Esteban Ugarte.

Loiola bataloiko kideak, 1936ko azaroan eta abenduan hil ziren frontean, 28 eta 25 urterekin, eta Gernikako hilerrian hilobiratu zituzten, baina, gero, gudarien gorpuak hilobietatik atera eta kanposantutik kanporatzeko agindu zuten frankistek.

Memoria historikoa berreskuratzeko ekimenaren baitan, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuen omenaldi ekitaldia (bertan dauden gudari gehienak gipuzkoarrak direlako) eta monolito eta plaka bana jarri zituzten gudari guztien izenekin. Oñatiko alkate Mikel Biain ere bertan izan zen, senideekin batera, Estebani eta Nikasiori larrosa bana eskaintzen.



Esteban Ugarte zenaren senideek eta alkateak parte hartu zuten ekitaldian



Selfie lehiaketa antolatu du Txandak

'Oñati Bizirik' izeneko *selfie* lehiaketa antolatu du Txanda dendarien elkarteak. Parte hartu ahal izateko, Txanda elkartearen motxila eskuratu, *selfie* bat atera berarekin eta Txandaren Facebook-era



igo da, abuztuaren 31 baino lehen. Partaide guztien artean 'atsegin dut' gehien jasotzen duten hiru argazkiak sarituko dira, 200, 100 eta 50 euroko erosketa-bonoekin.



San Martin ^{ikasleak mintzo} parkeaz

Bioaniztasuna hobetu eta parkea atsegina bihurtzeko proposamenak egin dituzte Zuazola institutuko ikasleek 'Agenda 21' programaren baitan

Urtero lez 'Eskola Agenda 21' programan parte hartu dute herriko hiru ikastetxeetako (Txantxiku, Elkar Hezi eta Urgain) 6 eta 16 urte arteko ikasleek. 'Biodibertsitatea' izan da aurten landu duten gaia, eta ohi bezala, ikasturte amaieran udaletxean aurkeztu zituzten biodibertsitatea zaintzeko eta hobetzeko proposamenak eta konpromisoak.

Eta testuinguru horretan, aurten bereziki azpimarratu behar da Zuazola-Larraña BHI institutuko ikasleek San Martin parkearen inguruan osatu eta aurkeztu duten azterlana.

Alde batetik, San Martin zuhartziko biodibertsitatea aztertu dute. Bertako haritzen ezaugarriak (adina, neurriak...) analizatu ondoren, lurzorua azterketa fisiko-kimikoa (pH-a,

materia organikoa, hezetasuna...) egin dute, lagin batzuk jaso eta ikastetxeko laborategian analizatuta. Biodibertsitate maila ona izateko baldintzak betetzen dituela ondo-ondortatu dute.

Hala ere, parkean dauden animalia (hegaztiak, ornogabeak...) ezberdinen behaketa egin ondoren, espezie aniztasuna urria dela uste dute, parkearen tamaina handia kontuan hartuz.

BIOANIZTASUNA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Ildo horretan, San Martin parkearen biodibertsitatea hobetzeko hainbat neurri proposatu dituzte, hala nola: zuhaitz eta zuhaixka espezie ezberdinak landatzea, animalia ezberdinak erakartzeko; landatutako espezieak izendatzea kartel erakar-

garrien bidez; parkeko eremu guztian belarra ereitea; txori, saguzar, triku edota intsektuendako etxeak jartzea, bertan elikatu eta bizitzeko...

Horiez gain, San Martingo ermitaren aldameneko sero-eremuan gaixo dauden animaliak sendatzeko edo abandonatuta utzi ohi diren atzerriko espezieak (dortokak...) jasotzeko gunea egokitzea proposatu dute, baina gai hau sakonago landu nahi dute oraindik.

HERRITARRENTZAT ATSEGINAGOA

Biodibertsitatea hobetzeko proposamenak egiteaz gain, San Martin parkearen azterketa historiko-artistikoa ere egin dute Zuazola-Larrañako ikasleek. Tourseko San Martin ermitako elementu artistikoak

Zuhaitz eta zuhaixka espezie ezberdinak landatzea, parkeko eremu guztian belarra ereitea, edota txorien eta intsektuendako 'etxeak' jartzea proposatu dute, besteak beste

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

joste tailerra

Jostun Chic

Coluri Etxebarria Arzuaga

- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

Motxon kalea, 3
T. 635 749 477

Adin guztietarako klaseak



Zuazolako ikasleak laborategian, San Martingo zuhaitzen ezaugarriak aztertzen, eta intsektuendako etxea prestatzen



(ate gotikoa, erretaulak, teilatuari eusten dion zurezko zutabea, estilo honetan Gipuzkoan dagoen bakarra...) eta ermitak nahiz parkeak oñatiarren bizitzan izan duen garrantzia (kofradiak, prozesioak, erromeriak, jaiak, bola-jokua...) ere jaso dute azterlanean. Eta, gainera, San Martin parkea herritarrentzat atseginagoa izan dadin hainbat proposamen ere egin dituzte, gaur egun "oso utzita" dagoen eremu horri merezi duen garrantzia emanez.

Besteak beste, eserlekuak berritzea, piknik eta irakurketa txoko edo gune bana egokitzea, bolatokia berritzea, eguzki bidezko kale-argiak jartzea, eta zakarrantzi gehiago ipintzea proposatu dute.


Lana borobiltzeko, triptiko edo esku-orri bat plazaratu dute hiru hizkuntzatan (euskaraz, gazteleraz eta ingelesez) San Martin parkeak dituen balioen (biodibertsitatea, ondare historiko-artistikoa...) berri emanez, herritarrek ezagutu eta balora-

tu ditzaten, eta parkea hobetzeko proposamenak azalduz.

Ikastetxeko arlo eta ikasgai ezberdinak uztartuz (natur zientziak, historia, hizkuntzak, teknologia, plastika, marrazketa teknikoak...) burututako lana izan da.

SAN MARTIN ERMITA BERRITU EGINGO DUTE

Mikel Biain alkateak zoriondu egin zituen ikasleak egindako lanagatik, eta esan zien kon-tuan hartuko dutela txostena San Martin parkea biziberritzeko planetan. Ildo horretan, aurreratu zuen, datorren urtean San Martin ermita eta serora-etxea berritzeko lanak egingo direla, Foru Aldundiarekin elkarlanean.



San Marti parkea hobetzeko egindako proposamenak plano batean jasota.

Batxilergo Duala eskainiko du Elkar Hezi ikastetxeak

» Estatu Batuetako batxilergo titulua lortzeko aukera izango dute bertako ikasleek

2017-18 ikasturtetik aurrera Batxilergo Duala eskaintzen hasiko da Elkar Hezi ikastetxea. DBHko 3. eta 4. mailan edo Batxilergoko 1. mailan ari diren ikasleek parte hartu ahal izango dute programa honetan, eta Batxilergoa amaitzen dutenean bi titulu lortuko dituzte: ohikoa eta Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) batxilergo (High School) titulua, mundu osoan errekonozituta dagoena.

Horretarako, AEBetako batxilergoko 6 ikasgai landu beharko dituzte ingelesez eta online, bi irakasleren gidaritzapean: ikastetxeko bat eta estatubatuarra bestea. Ikasgaiak lantzeko, ikasleek lanak bidaliko dizkiote hango irakasleari, eta, aldiro aldiro, eztabaida saioak egingo dituzte bideo konferentzia bidez. Hemengo irakasleak ikasleen lanaren eta aurrerapenen jarraipena egingo du.

Programa dual honetan ikasleek bereziki landuko dituzte: ekintzailetasuna, ikasten ikasteko gaitasuna, era digitalean komunikatzeko gaitasuna, eta ingelesez komunikatzeko gaitasuna.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lantzeria
- Umeon jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
 Faxes: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Txosnagunea birpentsatu



Idea berriak jasotzeko deialdia egin du Txosna Batzordeak, txosnagunea eta bertako jai egitaraua eraldatzeko asmoz



Txosnaguneari buelta bat emateko ordua iritsi da. Gauza asko inertziaz egiten dira, eta dinamika hori aldatu egin nahi dugu. Jendea aldatuz doa, garaiak aldatuz doaz, eta txosnek ezin dute orain dela hogei urteko eredia jarraitu". Txosna Batzordeak egiten duen hausnarketa da. Txosnagunea eraldatu beharra ikusten dute eta, horretarako, herritar guztiei zuzendutako deialdia egin dute, ideia berriak jasotzeko asmoz.

Ez dute konpromiso berezirik eskatzen. Ez da beharrezkoa Txosna Batzordean sartzea. Ideiak eta proposamenak entzun nahi dituzte. "Jendeak esan dezala zer ikusi nahiko lukeen txosnetako jai egitarauan. Ilusioa sortuko duten ekitaldiak antolatu nahi ditugu, eta jai oñatiarrak izatea, nortasun puntu bat edukitzea. Txosnaguneari izan behar du herriak nahi duena, eta horretarako entzun nahi ditugu jendearen ideia eta proposamenak".

Helburua, azken batean, herritarren parte-hartzea handitzea da, eta, batez ere, emakumeena. "Parekidetasuna sustatu nahi dugu, eta horretarako oso inportantea da ahalik eta neska gehienek parte hartzea. Beraz animatu egin nahi ditugu batzordera hurbiltzera".

UZTAILAREN 31ARTE. Txosna Batzordea astelehenetan batzen da Ona aurrealdeko plazatxoan. Bertara agertu besterik ez dute ekarpenen bat egin nahi dutenek. "Txosna Batzordea irekia da, edozein herritarrek parte har dezake, eta ongi etorriak izango dira ideia eta proposamen guzti-guztiak". Printzipioz, uztailaren 31ra arteko epea jarri dute ekarpenak egiteko. "Irailan egindako ekarpenak ere gogo onez hartuko ditugu, baina ordurako gauzak lotzen hasi beharra dago eta, beharbada, aurten ezingo dira martxan jarri, baina beste urte baterako balioko digute".

'DI-BERTSIOAK' IREKI. Bixamon eguneko Di-Bertsioak saioari ere bueltatxo bat eman nahi diotela aurreratu digu Txosna Batzordeak. "Herriko musikari askok parte hartzen dute, baina jende gehiagori ireki nahi diogu. Horregatik, ohiko musika taldeetan ez dabilzan musikariak animatu egin nahi ditugu parte hartzera (jar daitezela gurekin harremanetan), eta, bestalde, musika jotzen ez dakien jendeak ere parte hartzeko *play back* egiteko aukera ere egongo da".

Astelehenetan (19:30) batzen da Txosna Batzordea Ona aurrealdeko plazatxoan

JAIETARAKO DEIALDIK

HERRI EGUNEKO BAZKARIA ETA TALO TABERNA

Herri Eguneko taloen taberna kudeatzeko edota herri bazkaria zerbitzatzeko interesa duten taldeek **uztailaren 10a** baino lehen eman behar dute izena kultur etxean (943 780353 / kultura.idazkaritza@onati.eus). Bazkaria zerbitzatzeko taldeak 40 lagun izan behar ditu, gutxienez, eta bazkaritarako mahaia jartzeko ardura ere hartu beharko du.

ATZEKO KALEKO TXOSNA

Atzeko Kalen jarri ohi den txosnaren kudeaketa ere talde baten esku utzi nahi du udalak. Txosna eta soinu ekipoa jarriko ditu udalak. Diru irabaziak taldearentzat izango dira. Interesatuak **uztailaren 10a** baino lehen egin behar dute eskaera.

ARTISAUEN AZOKA

Herri Eguneko artisauen azokan 30 postu egongo dira, eta horietatik 20 herriko artisauentzat gordetako ditu udalak. Interesatuak **uztailaren 20a** baino lehen eman behar dute izena, kultur etxean.

**ETXiAN**
Oñatiko inbiliaria berria
Donostian etxea prosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza
Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net
Etxian 

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

**carpintería GARIBAI aroztegia**
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Ikastolaren 50 urteko ibilbidea liburu batean jasota

» Ikatolan eta Txokolateixan dago salgai 15 eurotan



Zigor Ibarzabal, ikastolako zuzendaria, eta Aitor Guridi, lehendakaria, liburuarekin eta gurasoei eskainitako plakarekin

liburuan ibili diren herritar askoren iritziak eta testigantzak ere bildu ditugu”.

Hiru ataletan antolatuta dute liburua: ikastolaren sorrera (1967-1979), kooperatiba bihurtzeko prozesua (1980-1989), eta 1989ko Kilometroak festatik gaur egun artekoa. Garaian garaiko lehendakari eta zuzendariekin egindako elkarrizketen bidez osatu dute historia, erraz irakurtzeko moduan, eta argazki askorekin lagunduta.

GURASOEI OMENALDIA. Aurkezpen ekitaldia baliatuz, 50 urte hauetan ikastolarengan konfiantza jarri duten guraso guztiei omenaldi xumea egin zitzaion, eta Aitor Guridi lehendakariak jaso zuen oroigarria guztien izenean.

‘KLIK-metroak’ ekimena abian da

Irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroak jaiaren harira, ‘KLIK-metroak’ ekimena jarri dute abian. Helburu da Kilometroetako zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien ematea. Horretarako, www.klikmetroak.kilometroak.eus webgunean sartu behar da. Bisitari bakoitzak metro bat egin ahal izango du, dohainik eta modu errazean, eta gero, bisitariak egindako metro bakoitzeko babesleek diru ekarpena egingo dute Kilometroak jaiaren alde.

Nolakoa zen antxinako Zubillaga?

Galdera horri erantzun nahi dio *Antxinako Zubillagari begirada bat* liburuak, Axun Billarrek, Eli Igarzabalek, *Ereitten* auzo-batzordeak eta Artixa taldeak elkarlanean osatu dutena. Hamalau hilabeteko taldelaren emaitza da liburua, eta lan bikaina osatu dute, zinez.

Neurri handi batean, uraren (Oñati eta Erguñia errekek) aldamenean eta urari esker sortutako auzoa da Zubillaga, liburuaren hitzurrean Jerardo Elortzak dioen moduan. Horregatik dira hain ugariak zubiak auzoan (*Zubillaga* izenak berak salatzen duen moduan), eta, bestalde, urak ahalbidetu du burdin-industriari hainbesteko garrantzia izatea auzoaren historian.


ZUBILAGATARREN KONTUAK

Liburuaren bigarren eta hirugarren ataletan auzotarren antxinako bizimodua eta ohiturak jaso dituzte: erlijioa, sineskeriak, eskola, jolasak, jaiak, kirola, jantziak, linua, baserriko bizimodua, fabriketako lana...

Goian esan dugun moduan, auzo industrialia da Zubillaga, eta, hain zuzen, Erdi Arotik gaur egun arte industriak izan duen bilakaera (burdinolak, fanderia, forjak...) jaso du Jose Antonio Azpiatzuk atal batean.

Zubillagako pertsona ospetsuek (Pedro Altube ‘Palo Alto’, Julian Irizar militarra, Francisco Madina musikaria...) ere badute beren lekua liburuan, eta azken kapituluan auzoko toponimia eta garai ezberdinetako mapa eta planoak bildu dituzte, hauetako bat 1805. urtekoa, non ikus daitekeen kondeak garai hartan Zubillagan zituen jabegoak.

Auzotarrek utzitako argazki zahar ugariz borobildu dute liburua, eta DVD bat ere badakar, antzinako irudiekin (trenaren etorrera, Altubetarren ibilerak, lihoa iruten...). Txokolateixan eskura daiteke liburua.



Txokolateixan eta Turismo Bulegoan dago salgai 12 eurotan



oreka
REFORMAS - INTERIORISMO

Euskadi Etorbidea 3 • Tel.: 943 902 009
orekainteriorismo@yahoo.com

- BARNE DISEINUA
- ALTZARIAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
- ERREFORMAK



Skate-zaleen gozagarri

Ibarrako skate gunea handitzeko lanak hasi dira. Tirolina bat ere egokituko da ondoko berdegunean.




Hasi dira Ibarrako *skate* parkea handitu eta osatzeko lanak, eta, ustekaberik ezean, abuzturako prest egongo da aisialdi gune berritua, *skater*, *roller* eta *biker*-en gozamenerako.

Iazko udazkenean egin zen 'Udal aurrekontuak *Araxerixan*' prozesuaren baitan, herriko gazteek egindako eskarietako bat izan zen *skate*-gunea handitzea, eta, hala, udalak 50.000€-ko diru atala bideratu zuen horretara.

Ondoko argazkian ikusten den moduan, Enpresagintza fakultatearen ondoan, gaur egun dagoen bainerari jarraipena emanez osatuko da *skate* gunea. Era honetako instalazioetan esperientzia handia duten *Fer*

Enpresagintza fakultatea eta kuartelaren arteko berdegunean egokituko da jolasgunea.



GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Argazkikoa bezalako tirolina egokituko dute Ibarrran

Skateparks enpresa eta Daniel Yabar arkitektoak egindako proiektuaren arabera, 51,66 metro luze, eta 7 metroko zabalera izango duen pista berria egokituko da kuarter aldera, jauziak eta akrobaziak egiteko elementu ugariarekin: lurreko barandak, piramidea, *hubba*, *planter*, *bench*, *hip*, *quarter*... Lanek 52.371€ko aurrekontua dute (BEZ barne).

20 METROKO TIROLINA

Skate gunea osatzeaz gain, gaur egun gazteen aisialdi guneetan modan dauden tirolina bat ere egokituko du udalak, artxibo aldera geratzen den berdegu-nean.

Manufacturas Deportivas enpresak egindako proiektuaren arabera, 20 metro luze eta 50 zentimetroko desnibela izango du tirolinak, eta balaztatze sistemarekin hornituta egongo da. Gainera, tirolinaren inguruan egurrezko hiru mahai jarriko dituzte, eta instalazioaren bueltan egurrezko itxitura jarriko da. Lanen aurrekontua, 8.339 € (BEZ kanpo).

Kataluniako erreferendumaren aldeko aldarria

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Oñatin egin zuten Santa Isabel egunez urtero egiten duten batzar ibiltaria. Oñatin egiten den era honetako laugarren batzarra izan zen; lehenengoa 1847an egin zen, Oñati Gipuzkoan sartu berritan, eta orain hurrengoa 1994an.



Mikel Biain alkatearen ongi-etorriko hitzaldiaren ostean, Eider Mendoza batzar nagusietako presidentek hartu zuen hitza, eta Katalunian egiten ari diren bidearen zilegitasunaz hitz egin zuen. "Demokraziak herria egiten duenean, legea demokrazia da, alegia, herritarren borondate librea" adierazi zuen Mendozak.

Arreta soziosanitarioko ikastaroa

Erakunde sozialetan mendeko pertsonek zaintzaile lanetan jarduteko 2. mailako profesionaltasun ziurtagiria eskuratzeko ikastaroa emango du udalak irailaren 4tik aurrera Olaburun (Zubillaga). Gaztekeraz izango da ikastaroa (370 prestakuntza ordu eta 80 orduko praktikak). Plaza mugatuak (15 pertsona). Interesatuak uztailaren 14ra arteko epea dute izena emateko udaleko Sozioekonomia sailean (Bidebarrieta 12). Informazio gehiago: 943003198 / enplegu@onati.eus.

Mojasoroko bidea konpontzen ari da Udala

San Martin auzoa eta Umerez aldea lotzen dituen oinezkoen bidea hormigoitzen ari da Udala, Murgiako auzotarrekin adostuta. San Martingo urbanizazio lanen ondorioz zokoratuta geratu zen bide hau, eta orain berreskuratzea erabaki da, oinezkoei ibilbide segurua eskainiz. Eskudela edo baranda ere jarriko dute, bidea irisgarriago egiteko. Egaralur egiten ari da lanak 50.000 eurotan.



Etxaluzeko parkea berritzeko lanak lizitaziora

Altube-Negeruela-Otaegi arkitektoek idatzitako proiektuaren arabera, 357.825 euroko aurrekontua dute Etxaluzeko parkea berritzeko lanek (garajeetako jabeek 72.294 ordaindu beharko dute) eta lau hilabeteko exekuzio epea.

Olakuako irisgarritasun lanak irailean hasiko dira

Olakua auzuneko urbanizazioa berritu eta irisgarritasun baldintzetara egokitzeko lehen faseko lanak 7, 8 eta 9 zenbakien inguruan egingo ditu Ugarte eraikuntza enpresak 171.927 eurotan (BEZ kanpo). Irailean hasiko dira lanak.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



EGITASMO FRESKO-FRESKOAK uda sasoirako

Turismo Bulegoak eta Arrikruzeko Kobak eskaintza berezia prestatu dute uda sasoirako, Familian, bikotean edo lagun artean gozatzeko

Oñatiko altxorak



Uztailaren 1etik irailaren 30era egunero zabalduko da informazio gunea, eta bisita gidatuak eskainiko dira 'Oñatiko Altxorak' ezagutzeko: **Sancti Spiritus unibertsitatea** (Euskal Herriko lehen uniber-tsitatea), **erretaula platereskoa** (Pierres Picart-en artelan nagusia), **San Migel eliza** (Gebaratar familiaren botere ikurra), **Gebaratarren kripta**, **Rodrigo Mercado Zuazolaren mausoleoa** eta **klaustro gotikoa** (erreka batek zeharkatutako bakarra estatu mailan). Gainera, turismo bulegoan dagoen ertaroko **San Migel errota** lanean ikusteko aukera egongo da.

Uztailan, **asteburu** eta **jai egunetan** eskaniko dira bisita gidatuak, eta abuztuan **egunero**, **13:00**etan eta **17:00**etan. (4€/pertsnako). Informazioa eta erreserbak: 943783453 / turismo@onati.eus. **Txokolateixia** Interpretazio Gunea ere zabalik egongo da uda sasoiari, eta bisita gidatuak ere eskainiko ditu. Informazioa: 605763595 / txokolateixia@hotmail.com

Aitzulo. Geoibilbidea Araotzen barrena.



Geoizkorri egitasmoaren baitan, Araotzeko bailaran barrena egingo da ibilbidea, Aitzuloko begia eta Sandailiko kobazuloaren kondairak eta sinismenak azalduz. **Abuztuaren 20an** (09:30). Izen-ematea: 943082000/arrikruz@onati.eus

Arrikruz-Oñatiko Kobak



Leize-lehoi nahiz hartzen babesleku izan den haitzuloan barneratu eta lurpeko munduaren edertasunaz eta handitasunaz gozatzeko aukera izango dugu Arrikruzten. Ohiko bisita (pasarelatik) egin, edo abentura kutsuko ekintza bereziaz gozatzeko aukera izango dugu, familian edo lagunartean.

53 Galerian barrena (pasarelatik). Bisitariarentzat egokituta dagoen kobaren alderdiaz gozatzeko ordubeteko bisita gidatua. Uztailan eta abuztuan **egunero**. Erreserba egitea gomendatzen da: 943082000 / arrikruz@onati.eus

DESPELEO TXIKI. Dibertsioa familian. Bidai zoragarria Arrikruz-Oñatiko kobazuloen labirintora. Estalaktita eta estalagmita artean galdu, eta historiaurreko animaliak deskubrituko dituzu. Plan biribila familia giroan eta umeekin (+6 urte) gozatzeko. **Uztailaren**



16 eta **29**, eta **abuztuaren 13**, **16** eta **27**an egingo dira (15:30etan, Arrikruzeko Interpretazio Gunean).

DESPELEO-ARRIKRUTZ. Abentura lurpeko munduan. Arrikruzten barrena eramango du bisitaria, eszentrikoa multzo ikaragarrien sekretuak edo Aldaola errekarren lurpeko bidea ezagutuz, besteak beste. **Uztailaren 23an** egingo da, 09:30etan, Arrikruzeko Interpretazio Gunean.

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPIZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

| A linearen ordutegia | | | | | | | | | |
|----------------------|------------|------------|-----------|-----------|------------|------------|-----------|-----------|------------|
| Ugarkalde | Errekalede | Anbuletage | Ugarkalde | Ugarkalde | Errekalede | Anbuletage | Ugarkalde | Ugarkalde | Errekalede |
| 7:30 | 8:00 | 8:30 | 9:00 | 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 |
| 8:30 | 9:00 | 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 |
| 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 |
| 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 |
| 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 |
| 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 |
| 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 |
| 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 |
| 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 |
| 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 |
| 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 | 22:00 |
| 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 | 22:00 | 22:30 | 23:00 |
| 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 | 22:00 | 22:30 | 23:00 | 23:30 | 24:00 |



| Larunegia | | | | | | | | | |
|-----------|------------|------------|-----------|-----------|------------|------------|-----------|-----------|------------|
| Ugarkalde | Errekalede | Anbuletage | Ugarkalde | Ugarkalde | Errekalede | Anbuletage | Ugarkalde | Ugarkalde | Errekalede |
| 8:00 | 8:30 | 9:00 | 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 |
| 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 |
| 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 |
| 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 |
| 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 |



| B linearen ordutegia | | | | | | | | | |
|----------------------|------------|-------------|------------|-----------|-----------|------------|-------------|------------|-----------|
| Ugarkalde | Anbuletage | Kasoblarria | Errekalede | Ugarkalde | Ugarkalde | Anbuletage | Kasoblarria | Errekalede | Ugarkalde |
| 8:00 | 8:30 | 9:00 | 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 |
| 9:00 | 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 |
| 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 |
| 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 |
| 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 |
| 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 |
| 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 |
| 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 |
| 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 |
| 17:00 | 17:30 | 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 |
| 18:00 | 18:30 | 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 | 22:00 | 22:30 |
| 19:00 | 19:30 | 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 | 22:00 | 22:30 | 23:00 | 23:30 |
| 20:00 | 20:30 | 21:00 | 21:30 | 22:00 | 22:30 | 23:00 | 23:30 | 24:00 | 24:30 |



| Larunegia | | | | | | | | | |
|-----------|------------|-------------|------------|-----------|-----------|------------|-------------|------------|-----------|
| Ugarkalde | Anbuletage | Kasoblarria | Errekalede | Ugarkalde | Ugarkalde | Anbuletage | Kasoblarria | Errekalede | Ugarkalde |
| 8:30 | 9:00 | 9:30 | 10:00 | 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 |
| 10:30 | 11:00 | 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 |
| 11:30 | 12:00 | 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 |
| 12:30 | 13:00 | 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 |
| 13:30 | 14:00 | 14:30 | 15:00 | 15:30 | 16:00 | 16:30 | 17:00 | 17:30 | 18:00 |



HERRIBUSAREN ORDUTEGIA UZTAILA ETA ABUZTURAKO

Goiko bi tauletan ikus daiteke Herribusaren 'A' eta 'B' lineek abuztuaren 4ra arte izango duten ordutegia. Gogoratu, ekainaren 12az geroztik Herribusa Usakora ere joaten dela. Zehazki, bi joan-etorri egiten ditu Usakora; lehenengoa 16:00etan abiatzen da Ugarkaldetik ('B' linea) eta bigarrena 19:30etan ('A' linea). Usakotik 16:30etan eta 20:00etan irteten da bueltan. Abuztuko erdiko asteetan (abuztuak 7-26) Herribusa goizez bakarrik ibiliko da: astelehenetik ostiralera 07:30-14:00 eta larunbatetan 9:00-14:00. Ez da Usakora joango. Abuztuko azken astean ordutegi normala berreskuratuko da, Usakora joan gabe.

Inposizioan eta inprobisazioan oinarritutako bi urte izan dira" adierazi du EAJ-PNVren audal taldeak, 2015-2019 agintaldiaren lehen erdiko balorazioa egiterakoan. "EH Bilduren udal-gobernuak ez du gaitasunik arazoei irtenbidea emateko".

Adibide bezala, kirol azpiegituren gaia aipatu du EAJk; "udal-gobernuak bi urte baino gehiago daramatza igerilekua handitzeko gaia lantzen, inolako irtenbiderik eskaini gabe. Ez ditu aintzat hartzen herriko eragileek egindako eskaerak, eta aurreproiekturik ere ez du garatu".

Kale Zaharreko gaueko zaraten arazoaren harira, EAJk neurriak proposatu baditu ere (Zaratu Mapa osatzea, indarrean dagoen araudia betearaztea, edo ordenantza berria egitea inguruko bizilagunen parte-hartzearekin) jeltzaleek salatu dute EH Bilduk ez diola konponbiderik eman nahi arazoari. "Bizikleta eta patineteen inguruko ordenantza ere berdindago. Ez da ezer egin" gehitu du EAJk.

Beste zenbait erabaki "inposatu" izana egotzi diote EH Bilduri; hala nola, Txaketuako bidegurutzea ixtea, TAO sistema ezartzea, edota erdigunea piboteekin ixtea. "EH Bilduren bulegoetan hartzen dira erabakiak, udal-batzordeetan eztabaidatu gabe, eta herritarrei entzun gabe, edota merkatoriengan izango dituzten ondorioak aintzat hartu gabe" salatu du EAJk.

PLANIFIKAZIO ETA EKIMEN FALTA

Aurrekontuen politikari dagokionez, "planifikazio-falta eta arrisku ekonomikoa



Udal gobernu taldearen inposaketa eta arazoak konpontzeko gaitasun eza salatu du EAJk

» Agintaldiaren lehen erdiko balorazioa egin dute jeltzaleek

eragin izana" egotzi diote jeltzaleek EH Bilduri. Ildo horretan, herritarren poltsikoetatik ordaindutako eta gastu handiko erabakiak hartu izana leporatu diote, hala nola, atez-ateko sistema mantentzea, eta kale-garbiketaren kudeaketa zuzenean udalak egitea.

Azkenik, oñatiarren kezkei eta ardueri erantzuteko udal-gobernuaren ekimen falta salatu dute jeltzaleek. "Bi urte hauetan ez du ezer egin herritarren elkarbizitza

hobetzeko, eta ez dute aztertu eta eguneratu nerabeen alkohol-kontsumorako prebentzio programak".

Oposizioan egonik, udal gobernuaren jardunari neurria jartzea dagokiola adierazi du EAJk, eta, batez ere, herriak aurrera egin dezan neurriak eta ekimenak proposatzea. Hala, 2017ko udal aurrekontuetan aurkeztutako 30 proposamenak gogorarazi ditu EAJk, bere jarrera erakitzailea agerian utziz.

“ Inposizioan eta inprobisazioan oinarritutako bi urte izan dira

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Alberto Estudio Fotográfico

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

TXIRLO DANAK EDO OHOLUTS!!!

Amaia Elorza

Berriki irakurri dut Oñatiko Udaleko oposizioko taldeak argitaratu duen oharra. Bi urte igaro diren honetan, agintaldiaren balorazioa omen. Ezker-eskuin, goia-behea, indarrez bota du norbaitek egur bola; auskalo geratu ote den txirlo bakarren bat tente.

Izan mugikortasuna, zaborra, kale garbiketa, aparkalekuak, herriko enpresak...bata zein bestea hankaz gora! Horren gaizki ote dabilkigu Udaletxea? Horren haserre orohar herritarrak?

Oposizioa, oposizio, betik. Bai, baina neurria ere hartu beharko zaio ba, ezta? Gainera, zalantza dut txirloak bota baino ez ote den egin oholuts!!

NAHIKOA DAI

Gontzal Belategi (Ernai)

2017ko maiatzaren 16an Javier Galarza Oñatiko EAJko presidentek idatzi bat plazaratu zuen azken egunetan bere alderdiak jasan dituen "erasoak" salatzeko asmoz. Bertan Ernairen pankarta eta kartel batzuei erreferentzia egiten zaienez, eta testuak Ezker Abertzaleari eraso egiteko erabiltzen dituen argudioak medio erantzuteko beharra sentitu dugu.

Lehenik eta behin barregarria iruditu zaigu Oñatin behin eta berriz errepikatzen diren ekintza horiek giza eskubideen aldeko daukagun errespetu falta ikaragarria bistako egiten dutela esatea, giza eskubideen 19. artikulua iritzi bat aditzera emateko edozein adierazpide (guk erabiliak barne) zilegi

direla dionean. Etikari buruz ere hitzegiten duzue, nahiz eta azken aldian zuen alderdia den etika gutxien erakutsi duenatariko bat. Adibidez, zuek horrenbeste babestu duzuen espainiar gobernua eta bere konstituzioak edozein herritarrek etxe baterako eskubidea duela esan arren Errekaleorreko biztanleak etxe duin bat gabe uzteko besteko etika daukazue. Zubietako biztanleei minbizia eragin dezakeen erraustegi bat oparitzeko etika daukazue. Mozal edo LOMCE bezelako legeak eta presoen dispersioa edo erakunde ugariaren pribatizazioa babesten dituen gobernu bat babesteko etika daukazue. Ez dugu uste gauzak horrela guri lektorik emateko eskubidea duzuenik.

Azkenik, SARE eta Ezker Abertzaleak eskatzean giza eskubideak babestu dituzuela esatea biktimismo merkea iruditu zaigu. Gainera, zer ulertu behar dugu, guk edo SAREk proposatu izan ez bagenu hauen aurka egongo zinaketela?

oposizioan dago legealdi honetan. Bere betebeharra da EH Bilduren udal-gobernuari kontrola egitea eta neurria hartzea; gehiago ez, baina ezta gutxiago ere! Legealdi erdira helduta, prentsurrekoa eskaini genuen EAJ-PNVren zinegotziok Batzokian ekainaren 9an.

Agerraldi horretan, bi urteko ibilbidetan EAJren zinegotziok egin dugun ahalegina eta erakutsi dugun ekimena azalerratu ziren. Baita erakutsi dugun jarrera aktiboa eta iradokitzailea ere. Izan ere, 12 batzordeetako saio guztietan parte hartu dugu, hutsik egin gabe. Horren ordainetan, zer egin dute EH Bilduren gobernukideek? Ekintza eta erabaki asko inposatu; ohikoak bihurtu dira "hau hola erabaki dou"... bezalako adierazpenak. Arazaok kontzertzeko, berriz, inprobisazioz jokatu dute; Kalezaharreko zaratei irtenbiderik ez eskaintzeak, bizikleten ordenantzarik ez adosteak, edo igerilekua eta kiroldegia beste urte batez kontzertzeke egoteak ederki erakusten dute EH Bilduren gaitasun ez nabarmena.

Batzuei (J.A. Amundarain eta A. Etxeberria) ez zaizkie gustatu, nonbait gure adierazpenak, eta Lourdes Idoiagari leporatu dizkiote bereak eta bi! Hala ere, EAJren zinegotzi guztion hitzak jaso ziren prentsurreko horretan. Guk ez dugu Oñatiko EH Bilduren mundu-ikuskerara, ez bakean, ez bizikidetzan, ez giza eskubideetan, ez gizarte-bizitzan, ez ekonomian eta industrian, ez hezkuntzan... Baina geu ere oñatiarrak gara, eta geure lekua daukagu herrian; EAJ-PNV eredu aldarrikatzen dugu eta babesten dugu; EAJ beti aurrera! Ez da, ez, lan makala Oñatin! Oraindik, batzuek gorroto larregi daukate, gure iritzian, gauza onerako.

EAJ-PNVren UDAL TALDEA OÑATIKO UDALAN

EAJ-PNVren udal-taldea: J. Balzategi, A. Erostarbe, M Etxegoien, R. Fernandez, J.K. Gerrikagoitia, L. Idoiaga eta N. Maiztegi

Bi urte igaro dira legealdia hasi zenetik. Bi urte hauetan, EH Bildu alderdiak (10 zinegotzi) eta EAJ-PNV alderdiak (7 zinegotzi) eratu dute udalbatza. EH Bilduk du gehiengoa, eta herria gobernatzeko du.

EAJ-PNVk 2.475 boto lortu zituen 2015eko hauteskundeetan (botoen % 41); hots, 10 boto-emailetatik 4k aukeratu zuten EAJ. Ez dira gutxi, baina

SUGEAK: MITOETATIK ERREALITATERA

Julen Astigarraga, Idoia Bollar eta Aimar Uribealgo

OHARRAK ETA DEIALDIAK

1972an JAIOTAKOEN KINTTADIA

Irailaren 2an egingo dute kinttadia 1972an jaiotakoek. Goizean poteoa egingo dute (12:30etan Aker-en) eta 14:30etan autobusa hartuko dute Korreos parean, bazkaltzera joateko. Bazkalondoa girotzeko DJ-a egongo da. Izena emateko 75€ sartu behar dira La Caixa-ko ES16-2100446010 0200071808 zenbakian, abuztuaren 15a baino lehen. Animatu!

ELKAR HEZIKO IKASLE OHIEN JAI

Irailaren 16an Elkar Hezi ikastetxeko ikasle ohien II. Jaia ospatuko dute. Elkar Hezin ez ezik, Milagrosan eta Benediktinetan ibilitako ikasleak ere gonbidatuta daude. Trikipoteoarekin (12:30 Boga tabernan) hasiko dute eguna, eta ondoren (14:30) bazkaria egingo dute plazako pilotalekuan (edo azokan); 16:00etatik aurrera, musikaldia, karaokea, sorpresak... Eskatu txartela (20€) Boga, Portu edo Aker-en, irailaren 8a baino lehen.

Sugeak animalia gorrotatuenetarikoak eta beldur gehien eragiten dutenetarikoak dira. Baina benetan horren arrisksuak al dira?

Oñatin aurkitzen diren 7 suge espezietatik bakarra da pozoitsua: sugegorri kantauriarra (*Vipera seoanei*). Bere pozoia ez da oso indartsua eta nahiz eta haurrentzat, alergikoentzat eta gaixoentzat arrisksua izan, gehienoi mina eragingo liguke. Urtean Espainian erregistratzen diren 130 sugegorri horzkadetatik %1a izaten da hilgarria. Erleen ziztadaren ondorioz berriz, lurralde berean 20 pertsona hiltzen dira batz bestea. Oñatin, Aranzadi Zientzia Elkartek egin duen ikerketan 130 suge ale ezberdin erregistratu dira, horietatik 12 izanik soilik sugegorriak.

Sugegorrien pozoia harrapakinak ehizatzeke garatu da eta defentsa mekanismo moduan beste aukerarik egon ezean erabiltzen dute. Nahiago dute bere kamuflajearengan konfiantza izan eta geldirik mantentzea edo ihesari ematea. Pozoia sortzea prozesu nekeza da eta ahal den heinean aurrezte eta soilik harrapakinak ehizatzeke erabiltzea komeni zaie; horzka egiterakoan pozoia kantitate txikia erabiltzen dute, pozoia guztiz galtzeak bizirauteko aukerak asko murrizten baitie. Sugeen inguruko ezjakintasan oinarriturik gabeko mito eta gehiegikerietara eraman gaitu. Ikerketek diotenez, sugeekiko beldurra ez da jaiotzetik datorkigun zerbait, ikasia baizik.

Egun, munduko suge espezieen erdia mehatxuan aurkitzen da eta gainbehera honen errua gizakioi dagokigu. Hala ere, gure jarrera kaxkarrari sugeek onura ezberdinak eginez erantzuten diote: karraskarien populazioak kontrolatzen dituzte, medikamentu ezberdinak beraien pozoietatik eratorritzen dira... Arrazoi antropozentriko hauek albo batera utzirik, sugeak gure biodibertsitatearen parte izatearekin soilik, beraien errespetatzeko nahiko arrazoi izan beharko litzateke. Sugea ikusiz gero, lasai uztea nahikoa izango da arriskua ekiditeko.

Arg.: Jose Fernandez



Ganbara Abesbatzari aitortza

Ustekabeko omenalditxoia egin zion udalak Ganbara Abesbatzari, ekainaren 29an parrokiako klaustroan eskaini zuten 'Udako Gauak' kontzertua baliatuz. Oñatiko herriaren izena mundura zabaltzea, eta alor ezberdinetan egiten duten lan bikaina publikoki eskertu nahi izan dio udalak aitortza honen bidez. Aitor Bñain zuzendariak jaso zuen oroigarria abesbatza osoaren izenean, udal ordezkarien eskutik.



Garagaltza auzoko jaiak

Bereziak izan dira aurten Garagaltza auzoko jaiak, besteak beste, auzora doan bidea inauguratu dutelako, lau urteko lanaren ondoren. Urtero bezala, San Juan egunaren bueltan ospatu zituzten jaiak. Larunbatean auzo bazkaria, ume jolasak, Mus txapelketa (argazkian daude irabazleak) eta erromeria. Igandean, berriz, meza nagusia eta luntxa. Aurten ere dotore apaindu zuten eliza, argazkietan ikusten den moduan.

LUDOTEKAKO ETA BERTAKOTZEKO IKASTURTE AMAIERA

Kurtsua amaituta oso balorazio positiboa egiten dugu bai ludotekatik eta baita bertakotze programatik ere. Urtero bezala herrian eta ludotekan hainbat ekintza egin ditugu, hala nola, Aste-Santutako eta gabonetako ekintza bereziak, ludoteka ibiltaria, ipuin kontalaria, uraren egunak, familiarekin txokolatada... Eskerrak eman nahi dizkizuegu urte guztian zehar antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen haur, gazte eta familia guztioi. Izan ere, zuek barik ezinezkoa izango litzateke ekintza guztiak aurrera eramatea, mila mila esker!

Ekintza guztiak izan dira garrantzitsuak, baina badira nabarmendu nahi ditugun batzuk. Ludotekari dagokionez, badira lau urtez zerbitzua kudeatzen ari garela, eta hori dela eta, haurrek zerbitzu honi buruz duten iritzia jakin nahi izan dugu. Horretarako parte-hartze saioak burutu ditugu. Lehenengoa martxoan egin genuen eta bigarrena ekainean. Hainbat eremu ebaluatu dituzte haurrek; harremanak, hezitzaileak, ludotekako materiala, egiten diren ekintzak, ... Parte-hartze saioak burutzeko dinamika desberdinak egin ditugu, jolasekin uztartzuz, eta emaitza interesgarriak jaso ditugu.

Haur eta Nerabe Etorkinen Bertakotze programan aldiz, ikasturte honetan izena aldatu eta logo bat egin dugu. Hemen-dik aurrera Txipistin: Jatorri Anitzeko Oñatiarren Programa izango da.

Zerbitzu hauei irailerarte agur esan diegu, eta horretarako, amaiera polita eman diegu Ludotekako azken jaiarekin eta honako irteera hauek eginaz:

>> Txaloka ludoteka: Ikasturtea borobiltzeko, Oñatiko Portokalekun egon ginen ludotekako haur eta familiarekin.

>> Txipisteneko haur eta gazteak: Txipistineko haurrak egun pasa itzela izan zuten Gamarran eta gazteak, aldiz, Donostira joan ziren asteburu pasa.

Ondo ondo pasa oporretan eta udaleku irekietan ikusiko gara!!!



AURRERA GOIAZ

Lehenengo egunian barriketan egittek Laukeria izan neben berrogei urtian Alemanian lanian ibilli dan herriko seme batekin; orain larogei urte dittu eta herrira etorritta dago erretirua hartuta.

Lehenagoko kontuak aittaketan hasi giñan, aitta-amen bizimodua, umetako eskolia, eta halako baten, gura barik, euskeriaren egoeriaz berbetan hasi giñan. Esaten nostan, berak hainbeste urte kanpuan pasau eta gero, zelako aldaketa igarten eben euskeriaren normaliza-ziñuaren inguruan. Berak maristetan ikasi eben *maisú baltza* eta konpaiñiarekin, eta ondo akordaitten zan euskeraz egittiatatik eraztuna ifintten osteilla zigor moduan. Ikaslien artian erderaz egittek gauza ixixa iñor etzanean, ikasle bat jarten euen beste ikaslien zaintzaille eta euskeraz egitten harrapoten ebenari eraztuna emuten otsan; gero ha zaintzaille eta eskola akaberen eraztunarekin geraketan zana, zigortu egitten euen berrogeita hamar aldiz kopixaittera *“no hablaré más*

Roberto
Altuna



en vasco”, esaterako. Orduan billurrez bizi zirala aittortu nostan. Orain, barriz, ume eta gazte danak euskeraz entzuten dittuela kalia doianian, tortilliak ez sinisketako moduko bueltia emun dauela bere ustez. (Berak dixuena kale ebaleriaren gaiñeko azkeneko enkuestiak be konfirmau egitten dosku).

Aldamenian arrebia ekuan eta harek be konbersaziñuan parte hartuaz kontau eben lehenengo batian kalia ikusi ebela zapiz tapautako ama bat bere hizkuntzan berbetan alabiagaz, eta harek zela erantzuten otsan euskeraz. Ikaragarrixa, esaten nostan, eskoliaren inddarra noraiñokua dan, e! Harrittuta eguen!

Horren moduko beste anekdota bat kontau eben Alemaniatic etorri barrixak. Plazan ei eguen herriko beste lagun batekin eta hango taberna baten txikito bat hartzea pentsau ei euen. Sartu ziran

eta kamareria emakume gazte baltzizka bat ei zan. Euron artian, —*honek jakingo ete xok euskeraz?*— Eta emakumia argi, zertan ebiltzen igarritta, hola erantzun ei osten mosuari begira: **nik zuek moduan egitten dot euskeraz, egin billurrik barik!** Lagun bixak jota geratu ei ziran batak bestiari zer esan ez ekixeilla, — *honek sakatu zoskuk ederra!*— pentsauaz.

Handik urtenda, kamarera harek berari eskola denporan sortutako konpleju eta trauma danak apurtu otsala esan nostan nere lagunak. Buruan sartuta ekuan konplejuak honeitxek ziran: bat, euskeria zaila zala ikasteko, eziñezkua ez esatiagatik, eta bakar-bakarrik ikasi zeikiela etxian, aitta-ama euskaldunak euki ezkeru; eta bi, euskeria ezertarako be balixo ez eben ezgauzia zala, eta ahaztuta be etzala ezer galtzen.

Taberna hartan ikusittakuak erakutsi otsan, berriz, barruan ekuan bi konpleju horreik gezurrak zirala eta, horrekin konturatuta, pozez beteta eta trauma hartatik liberata sentiu zan Alemanian berrogei urtian bizi izandako herriko seme hau.

ZATOZ INFORMATZERA!!

ONATIKO
aukerarik zabalena

Arantzazuko Arria | San Martin
Adosatuak Kurtzekua | Kurtzekua

italde | www.italde.com | Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07

Leintz-Bidea berritu dute Garagaltzan



Lau urteko lanaren ondoren, ekainaren 25ean inauguratu zuten Garagaltza auzoan berritu duten Leintz-Bidearen hasierako zatia, Etxeberrialde ea Gaztelondo baserrien artean.

Garai batean Oñatitik Leintz bailarara joan-etorria egiteko erabiltzen zen bidea da hau: San Juan kalen abiatu eta Gaztelondo, Garagaltza, Lamiategi, Urruxola, Urruxola Garai, gaina igarota, Korueta eta Aretxabaletaraino.

Gure arboasok hainbat mendez erabili zuten bide hau galduta edo porlan azpian estalita dago tarterik gehienetan, baina saihesbidetik San



Kaltzada berritu aurretik

Juanera doan horma-arteak mantentzen zen oraindik, eta horixe berritu dute auzotarrek. Bidea estaltzen zuen lur geruza kendu, euri urak bideratzeko hodiak sartu eta galtzada berritu dute, bertako harria berrerabiliz neurri handi batean. Harlauza zabalez egindako espaloi dotorea ere egokitu dute aldamen batean.

Jabier Bikuña auzoko hargina eta bere langileen gidaritzapean, auzolanean egin dituzte lanak, udalaren 'Auzotasuna' programako diruarekin. Mikel Biain alkateak zoriondu egin zituen auzotarrak egindako lan bikainagatik.



Tximeletendako oasia San Martinen

Uztailaren 1-2an tximeleten inguruko ikastaroa (identifikazioa, biologia,...) egin zen Oñatiko Natur Eskolak eta *Zerynthia*, tximeleten babeserako elkarteak antolatuta, eta besteak beste, tximeletentzako oasi bat prestatu zuten San Martingo baratza parkean, Okitaño elkartekoen laguntzarekin. Tximeleta helduak erakartzeko eta arraultzak bertan jartzeko egokiak diren landareak (ahabia, marrubia, borraja, elorri beltza, kardua, mihilua, ekilorea...) sartu dituzte bertan. Gipuzkoan gaur egun 100 bat tximeleta mota daude, eta horietatik 80 bat daude Oñatin.



Oñatiko altxorrak ezagutzeko INGURUMEN IRTEERA

» Uztailaren 23an, 9:00etan plazan

Oñati hobeto ezagutu eta, batez ere, ondo pasatzeko asmoz, gazteei (+11 urte) zuzendutako irteerak antolatu dituzte, ingurumen gaietan adituak diren herriko hiru gaztek (Julen Astigarraga, Maddi Mujika eta Xanti Ugarte), udalaren babesarekin.

Gazteen adinaren arabera, hiru talde egin dituzte (11-12 urte, 13-15 eta 16tik gorakoak), eta bakoitzarekin bost irteera egingo dituzte Oñatiko inguruetara (Aitzulo, Urzulo, Iturrigorri...) eta gai ezberdinak landuko dituzte (narrastiak, anfibioak, landaretza, ibai ekosistemak...). Interesatuta egonez gero, ingurumenirteerak@gmail.com helbidera idatzi.

Aurtengo irteera sorta borobiltzeko, uztailaren 23an irteera irekia egingo da. Ez da beharrezkoa aurrez izena ematea. Goizeko 9:00etan da hitzordua, udaletxe atarian.

2017/2018 ikasturteko igeriketa ikastaroetan eta ur ekintzetan izena emateko epea / uztailak 17-21

Herriko jaien ostean, urriaren 6an, Zubikoa kiroldegian hasiko diren haurrentzako igeriketa ikastaroetan eta ur ekintzetan (nagusientzako igeriketa ikastaroak, *aquagym* eta *aquatrining*) izena emateko astebeteko epea zabalduko da uztailaren 17tik 21era. Kiroldegiko bulegoan eman behar da izena, goizez (10:00-13:00) edo arratsaldez (16:00-19:00). Irailan (4tik 8ra) ere egongo da izena emateko aukera.

Kantoikrit, uztailaren 15ean

Uztailaren 15ean jokatuko da Oñatiko VI. Kantoikrit, pinoi finkodun bizikleten kriteriuma, herriguneko kaleetan, gaueko 10etan hasita. Txirrindulariek 18 bira emango dizkiote 1,4km.-ko ibilbideari (Foruen plaza-Lope Agirre-Portu-San Anton-Aita Madina-Uniber-tsitate etorbidea-errotonda-Foruen plaza).



ARANTZAZUKO IGOERA. Uztailaren 22an jokatuko da Arantzazuko XLVIII. Igoera, Junior mailako txirrindularientzat. Roke Azkunen abiatu eta Sindika gainean amaituko da 70 km.ko ibilbidea osatu ondoren.

MENDI IRTEERA / UZTAILAK 15-16

Gran Facha (3.005 m.)



Asteburuko irteera antolatu du Aloña Mendik uztailaren 15 eta 16rako. Larunbatean, goizeko 6:00etan irtenda, *Pont d'Espagne-Lacs de Pourtet-Wallon aterpetxea* ibilbidea egingo dute (13km eta 950m+). Igandean, *Wallon-Gran Facha-Respumoso-La Sarra* (20km eta 1250m+). Goi mendiko ibilaldia da. Gehienez 22 pertsonendako lekua egongo da. Prezioa: 60€ (ez-bazkideek 70€, langabetuek 50€). Derrigorrezkoa da federatuta egotea, eta kranpoiak eta pioleta eramatea. FEDME txartela ez daukanak 10€ gehiago ordaindu beharko du. Wallon aterpetxean pasako dute gaua (afaria eta gosaria prezio barruan). Uztailaren 12ra arteko epea dago izena emateko (alonamendi.mendi@gmail.com).

Partehartze errekorra Torreauzon



Aitor Mimenza (23:33) eta Nerea Etxezarreta (28:19) izan dira azkarrenak Torreauzoko 20. edizioan. Gizonezkoetan Oxel Sanchez eta Ander Agirrek osatu zuten podiuma, denbora berean (25:30), eta emaku-mezkoetan Marisol Ramos (29:28) eta Madidi Mujikak (30:31). Iñaki Arriaran (26:02) izan zen Oñatiko azkarren gizonetzkoetan. Danera 161 korrikalarik parte hartu zuten.

Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikula

Uztailaren 13tik 19ra

Eskaintza akademikoa

| OÑATI GESTIO HEZIKETA | MGEP |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkeritza • Salmenta Kudeaketa • Nazioarteko Merkataritza | <ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizabak • Automatizazioa eta Robotika Industrial • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produktioaren Programazioa • Mekatronika Industrial |

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

Itsas zeharkaldien garaia

Xabier Gordoak bi podium lortu ditu aurreneko hiru probetan



Azken urteotan gure ordezkariarik onena izan da itsas zeharkaldietan, eta aurten ere onenen pare lehiatzeko gai dela erakutsi du Xabi Gordoak, hiru probatetik birritan igo baita podiumera. Hirugarren sailkatu da *Los 10.000 del Soplaio* (Kantabria) eta Mutriku-Deba (3.000 m.) zeharkaldietan, eta 23. postuan Mallorkako (10km.) elite mailako proban.

Zein dira aurtengo helburuak? Lehenengoa Mallorkakoa zen, eta oso gustora geratu nintzen; jende oso onarekin joan nintzen denbora askoan, eta marka oso ona egin nuen.

Getaria -Zarauz trabesia (2,8 km.) da hurrengo helburua, uztailaren 23an. Trabesien artean erregina da, aurten 2.800 lagunek parte hartuko dute, eta hor ahalik eta lanik onena egitea da helburua. Zarauzko portu pareraino onenekin iristen banaiz, konforme. Iaz 9. amaitu nuen.

Abuztuan atsedean hartu, eta irailaren 2an jokatu den Bermeoko trabesia (5km.) ere gorritz markatuta daukat.

Distantzia luzeak dituzu gustuko? Bai, 5.000 metro eta hortik gorakoetan mol-

datzen naiz ondoen. Arnas luzekoa naiz.

Zein dira gakoak itsas zabaleko probetan? Irteera oso inportantea da. Aurreneko 500 metroak topera egiten dira, taldetxoak egin arte. Erritmo horri eustea izaten da lehen helburua. Gero, pittin bat jeitsi egiten da erritmoa, azken txanpararte. Esprintean aukera gutxi izaten dudanez, ahal badut aurretik erritmoa jartzten saiatzen naiz.

Nola prestatzen dituzu trabesiak? Urritik abendura ez dut pizsina ukitzen. Beste kirol batzuk egiten ditut. Urtaurrian hasten naiz eta otsailetik aurrera astean 15.000/18.000 metro egiten ditut. Eta maiatzetik aurrera, bi astetik behin itsasora joaten naiz Zumaiaiko lagun batzuekin, batez ere metroak egitera.

Desberdina izango da igerilekuan eta itsasoan igeri egitea, ala? Itsaso zabaleko edo itsasadarretako probetan inportantea da orientazioa edukitzea, eta korrontek ondo hartzen jakitea. Olatu handiak daudenean besakada motzagoak eman behar dira... Faktore asko daude, baina serie onak eta intentsitatea pizsina egiten dira.




gero eta jende gehiago dabil trabesietan. Getaria eta Zarauz artekoan 2.800 izango dira

» IGERIKETA

Bost domina Gipuzkoako txapelketan

Urrezko bat eta zilarrezko lau domina lortu zituzten



Aloña Mendiko igerilariak Gipuzkoako txapelketan. Ainhoa Redin nabarmendu zen gehien; 100 Bizkarrean txapelduna izan zen, eta estilo bereko 50 eta 200ekoan bigarren sailkatu zen. Bestalde, Aitor Tatiegik eta Sara Iasisasmendik zilarrezko domina bana eskuratu zituzten 100 Estilo eta 100 Libreetan. Gainera, Sarak Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Sari banaketa ekitaldiaren ostean, Izarraitz Igeri Elkarteko kideek omenaldi berezia eskaini zioten Xabier Infante 'Artza'ri, Aloñako prestatzai-leak hiru hamarkadatik gorako ibilbidean egindako lana aitortuz.

San Migel Pilota Txapelketa berezia izango da aurten



» Uztailako ostiral guztietan (18:45) jokatu dira partiduak Zubikoan

Aloña Mendiko pilota saila 50. urteurrena ospatzen ari da aurten, eta hori ospatzeko, San Migel pilota txapelketari ere oihartzun handiagoa ematea erabaki dute. Azken urteetan finalerdiak eta finala bakarrik jokatu dira, baina, aurten 16 bikotek parte hartuko dute (8 Kadetetan eta 8 Gazte mailan). Maila bakoitzean lauko bi multzo daude, eta elkarren arteko ligaska jokatu ondoren, multzo bakoitzeko aurreneko biak gurutzatu egingo dira finalerdietan, eta finalak Errosario igandean (urriak 1) jokatu dira. Ekainaren 30ean jokatu zen lehen jardunaldia, eta hurrengoak uztailaren 7, 8, 14, 21 eta 28an jokatu dira. Oñatiko bost pilotari (Iñigo eta Ibon Perez, Tatiegi, Biain eta Gartzia) ariko dira, eta hauekin batera Euskadiko pilotaririk onentsuenak. Jardunaldi gehientzuenak (uztailaren 8koa izan ezik), ostiral arratsaldetan (18:45) jokatu dira Zubikoan.

PEREZTARRAK, DEBA ARROKO TXAPELDUN

Ibon eta Iñigo Perez Aloña Mendiko pilotariek Deba Arroko txapelketa irabazi dute Kadete mailan Aitor Tatiegi oñatiarra eta Jauregiri 22-5 irabazita. Ibonek jaso zuen finaleko jokalaririk onenaren saria. Bestalde, Gazte mailan, Ander Biainek eta Balerdik 22-6 galdu zuten finala, Murua eta Gartziaen aurka. Bestalde, Ibon Perezek Gipuzkoako mendebaldeko lau terdiko txapelketa irabazi du.



'PILOTA EGUNA' UZTAILAREN 15EAN

Pilota sailaren 50. urteurreneko ospakizunen barruan, 'Pilota Eguna' ospatuko da uztailaren 15ean plazako pilotalekuan. Takoak jartzeko tailerra, pilotagileak, pilota jokoak eta Iparraldeko joko-luze erakustaldia (Foruen enparantzan) egongo dira, besteak beste.

Xabier Murgiondo azkarrena Gipuzkoako erlojupeko txapelketan



AMPO taldean ari den Xabier Murgiondo txirrindulari oñatiarrak Gervais Memoriala (Gipuzkoako erlojupeko txapelketa) irabazi du 23 urte azpikoen Afizionatuen mailan. Murgiondok 27:29an osatu zuen 21 km.-ko ibilbidea, eta Oier Iburgurenak (23 segundura) eta Iñigo Altunak (30era) osatu zuten podiuma. Iaz ere irabazi zuen proba hau Gazte mailan, baina aurtengoa handia izan da, benetan, Afizionatuetan bere lehen urtea duela kontuan hartuz.

Hori gutxi baliz, ekainaren 23an Sorian jokaturako Espainiako erlojupeko txapelketan 9. sailkatu zen Murgiondo, goi mailako txirrindularia dela agerian utziz, beste behin.

Bikuña, Luis eta Ormaetxea Gipuzkoako Duatloi txapelketako podiumean

Ekainaren 2an Azkoitia jokatu zen Sprint erako (5/17/2,5) Gipuzkoako Duatloi txapelketan hiru oñatiar igo ziren podiumera. Miren Josune Bikuña (1:07:29) emakumezkoetan eta Beñat Ormaetxea (1:00:16) juniorretan azkarrenak izan ziren, eta Xabi Luis (00:54:26) bigarrena senior mailan.

Bestalde, Pasai Donibaneko sprint distantziako (750m./20km./5km.) triatloian bi oñatiar izan genituen podiumean. Emakumezkoetan Ihanire Urteaga (1:21:35) hirugarren helmugaratu zen, eta Beñat Ormaetxea (1:19:23) azkarrena izan zen Junior mailan.

Asier Alonso irabazle T2T lasterketan

Asier Alonso korrikalari oñatiarrak Tolosaldeko 2 Tontorrek (T2T) lasterketaren lehen edizioa irabazi du. Uzturre eta Erroizpeko tontorrek lotzen dituen 24,5km.-ko lasterketa 2:11:32 osatu zuen Alonsok, eta Iokin Lizeagarekin eskutik heldura helmugaratu zen. Bestalde, Eskoriatzako Gabaz Takarraren lasterketan bigarren helmugaratu zen Alonso.

ISASTI ETA BERNAL ERE PODIUMEAN

Argider Isastik BT'Tko bi proba gogorretan podiumera igoztea lortu du. Zaragozako La Dolorosa (168km.) proban 2. sailkatu zen, eta Eusko Bike Challengean 3.

Bestalde, Amaia Bernal, Antxintxiketan taldeko korrikalariak Igeldoko igoera (7km.) irabazi zuen 33:15 denborarekin.



Arte Ederretan doktore,
EHU/UPVko irakasle eta
'Letraz' Diseinu Grafikoa eta
Tipografia arloko ikerketa
taldeko zuzendarietako bat da
Leire Fernandez

III. Kaligrafia jardunaldiak Arantzazun

Uztailaren 14 eta 15ean III. Kaligrafia Jardunaldiak egingo dira Arantzazuko Gandiaga Topagunean, EHU/UPVko 'Letraz' Diseinu Grafikoko Ikerketa Taldeak eta Arantzazu Gaur Fundazioak antolatuta. Leire Fernandez oñatiarra da 'Letraz' taldeko zuzendarietako bat, eta berak azaldu dizkigu Kaligrafia jardunaldien nondik norakoak.

III. Kaligrafia Jardunaldiak antolatu dituzue Arantzazun. Zer dela eta?

Arantzazun Gandiaga Topagunea bezalako leku pribilegiatu bat daukagula ikusita, duela hiru urte hitzarmen bat sinatu genuen EHUko 'Letraz' ikerketa taldeak eta Arantzazu Gaur fundazioak, diseinu grafikoaren arloko aktibitate ezberdinak antolatzeko asmoz, eta halaxe sortu genuen 'Arantzazu Letraz Gunea'.

Hala, kaligrafiari buruzko tailer bat antolatu genuen duela bi urte, eta ikusita jendea gustura egon zela, jarraipena ematea erabaki genuen, eta aurtengoa, jada, hirugarrena izango da.

Poliki poliki, Arantzazu erreferentzia marko bihurtzen ari da kaligrafian sakondu, praktikatu eta esperientziak elkarbanatzeko. Gure asmoa da 'Arantzazu Letraz Gunea'ri jarraipena ematea eta kaligrafiarekiko grina transmititzea.

“Aurten letra erromatarra landuko dugu. Gaur egun ordenagailutan erabiltzen ditugun letren oinarrian dago hizki erromatarra

Zergatik kaligrafia?

Eder idaztearen artea da kaligrafia; trazuen bidez letrak marraztea. Eta kaligrafiaren oinarriak ondo ulertzea, letra ezberdinen korpusak ezagutu eta nondik datozen ulertzea oso inportantea da diseinu grafikoan eta, zehazki, tipografiaren arloan lan egin nahi duenarentzat.

Gainera, ikusten ari gara, sorkuntza grafikoaren prozesuan molde kaligrafikoen berpizte bat ematen ari dela zenbait arlotan, tresna informatikoen eta gehiegizko mekanizazioaren aurreko erreakzio moduan.

Aurreko bi edizioetan bezala, aurten ere di-da batean bete dira plaza guztiak, ezta?

Bai. Kaligrafia tailerrari behar bezalako etekina atera ahal izateko, plazak mugatuak dira (20 lagun), eta, bai, egia da, izen-ematea ireki orduko bete ziren. Gainera, irakaslea bera ere, Oriol Miró kataluniarra, erreferente bat da kaligrafiaren arloan, eta jende asko erakartzen du.

Madrilen eta Bartzelonan egoten dira honelako tailerrak, baina Euskal Herri mailan bakarrenetakoa da, eta interes handia pizten du. Espainiako toki ezberdinetatik (Galizia, Salamanca...) dator jendea.

Aurten letra erromatarra lantzeko duzue jardunaldietan, eta hasierako hitzaldia zeuk emango duzu, ezta?

Gure asmoa da letra tipo ezberdin bat lantzea urtero, ikasleei aukera berriak emateko. Duela bi urte letra etzana edo *kurtsiba* jorratu genuen, eta iaiz letra Gotikoa.

Grafia erromatarra ere oso

inportantea da, gaur egungo letra tipo erabilien (*Times*, *Courier*, *Geneva*...) oinarrian dagoelako. Lehenengo egunean Eduardo Herrerak eta biok emango dugun hitzaldian erromatar letra larrien morfologia aztertuko dugu, gero praktikan jartzeko Oriol Miró k zuzenduko duen tailerlean.

Gaur egun erabiltzen dugun tipografia ulertzeko, inportantea da hizki erromatarren ezaugarriak ezagutzeta.

Kaligrafiaz hitz egiten ari gara, baina EHU/UPVko 'Letraz' ikerketa taldean beste esparru asko ere lantzen dituzue. Besteak beste, 'EHU' letra tipoa sortu duzue.

Diseinu grafikoarekin lotura duten arlo guztiak lantzen ditugu 'Letraz' taldean. Ni neu, adibidez, ikus-nortasunaren arloan eta grafika editorialean nago espezializatuta, batez ere.

'EHU' tipografia sortzearena unibertsitateko errektoradutzaren enkargua izan zen. Bere marka edo ikus-nortasuna berritzea erabaki zuen EHUk,



'EHU' tipografia sortu du 'Letraz' ikerketa taldeak



Liburu-azalen diseinatzaileei zuzendutako liburua argitaratu du Leire Fernandezek

eta pentsatu zuten interesgarria izango zela tipografia korporatibo bat edukitzea, eta helburu horrekin sortu genuen.

Erronka handia izan zen, unibertsitateko esparru guztientzako (letrak, zenbakiak, ikurrak...) balio behar zuelako eta, gainera, bi hizkuntzen arteko elkarbizitza bermatu behar zuelako.

EHUren webgunean dago eskuragai tipografia, dohainik. Oñatin, adibidez, 'Eskolako Bidea' kanpainan erabili dute.


Bestalde, 'Diseño de cubiertas de libros. Recursos de retórica visual' izenburua duen liburua argitaratu zenuen iaiz.

Eduardo Herrera 'Letraz'-eko kidearekin batera idatzi nuen. Liburu-azalen diseinatzaileei zuzendutako sailkapen moduko bat da, baliabide grafiko ugari eskaintzen dituen; azken batean liburu baten azala garrantzitsua delako irakurleak erakartzeko garaian.

Datorren urterako, marka grafikoaren inguruko liburu bat prestatzen ari gara. ■

» ERAKUSKETA / UZTAILAREN 15ETIK IRAILAREN 17RA GANDIAGA TOPAGUNEAN

Irakurtzeko eta ikusteko poemak



Nazioarteko hamahiru kaligrafo ospetsuk 'Arantzazu euskal-sinismenaren poema' liburuko olerkiak interpretatuko dituzte

Kaligrafia Jardunaldien baitan erakusketa berezia antolatu du Arantzazu Letraz Guneak. Nazioarte mailan izen handia duten hamahiru kaligrafok Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu euskal-sinismenaren poema* liburuko hainbat pasarte interpretatuko dituzte, olerkia eta kaligrafiaren arteko harremanean arakatzeko asmoz. Olerkietako hitzak ikus-arte bihurtuta ikusiko ditugu, hizkuntza poetikoaren mugak esploratzeko modu berri bat proposatuz. Poema adimenaren ahotsa da, baina kaligrafiaren bidez pinturarako bidea hartzen du, eta haratagoko zentzu bat iradokitzen du

LARUNBATETAN (11:00-14:00 / 17:00-19:00) ETA IGANDE NAHIZ JAI EGUNETAN (11:00-14:00) EGONGO DA IKUSGAI

AGENDA

07

UZTAILA ABUZTUA



ODOL ATERALDIA

> **UZTAILAK 7 / 17:00**
Enpresagintza fakultatean,
17:00etatik 19:00etara.

TAILERRAK

> **UZTAILAK 8 / 18:00**
'CO-ESCUCHA' TAILERRA
BiziPoz programatik sortutako
Co-escucha tailerra. Gaia: 'La
sorpresa'.. Herritar guztiei ire-
kia. Dohainik. Eltzian.

MENDI IRTEERAK

> **UZTAILAK 8 / 18:00**
ALOÑA ILUNABARREAN
Arantzazuko Parketxeak eta
Arantzazuko Adiskideek anto-
latuta Lau orduko ibilaldia.
Aurrez izena eman behar da:
943 782 894 / 699 335183 /
Prezioa: 3€. Parketxean.

> **UZTAILAK 15 / 9:00**
GAZTETXEA ANTOLATUTA
Harizti bat ezagutzera joango
dira, eta basoaren ezaugarriak
eta inguruneak dituen ondo-
rioak ezagutuko dituzte, gaian
aditua den lagun batek azal-
duta. Parketxean.

OLD CHARM BLUES

> **UZTAILAK 12,**
San Lorentzoko ermita
aurrealdean, 19:00

'Kalean' udako kultur
egitarauaren barruan,
Ainhoa Egiguren
abeslariak eta Iñaki Miguel
pianujole donostiarrek
osatzen duten Old Charm
Blues taldearen kontzertua
izango dugu San
Lorentzoko ermitaren
aurrealdean. 2010. urtean
sortutako talde honek
'oldie' bezala ezagutzen
diren abestiak kantatzen
ditu, hau da, 50. eta 60.
hamarkadako blues, soul
eta rock and roll doinuak.

BIZIKLETA IRTEERA

> **UZTAILAK 8**
BIDASOAKO BIDE BERDEA
Txirrinka taldeak antolatuta.
Natur Eskolako kideek azal-
penak emango dituzte bi-
dean zehar. Izena emateko:
txirrinka@gmail.com.

MUSIKA

> **UZTAILAK 14 / 19:30**

BITZ
Oñatiko 'Bitz' punk-rock
taldeak 'Alien' disko berria
aurkeztuko du . Gaztetxean

> **UZTAILAK 16 / 18:30**

ENERITZ FURYAK
Eneritz Dueso irundarrak folk-
rock doinuekin grabatu duen
diskoa aurkeztuko du, eta on-
doren afari-meriendatxoa
egongo da (Eguraldia txarra
bada, Gaztetxean). Usakon

> **UZTAILAK 23 / 19:30**



JON BASAGUREN
Izaki Gardenak-eko abeslari
eta gitarra jolea bakarlarri mo-
duan ariko da, country, blues
eta pop estiloak uztartuz.
Boga tabernan.

> **UZTAILAK 27 / 19:00**

LOU TOPET

Pete Seeger kantari estatuba-
tuarraren espiritua berpizteko
asmoz sortutako Lou Topet
taldearen kontzertua entzun
ahal izango dugu, 'Kalean'
egitarauaren baitan,. Atzeko
Kalen.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode
hau agendako deialdi
guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



ZINEA

> UZTAILAK 12 / 22:00

'LA HAINE' (Gorrotoa)
Mathieu Kassovitz-en filmak Parisen gizartetik baztertuta bizi diren hiru gazteren (judu bat, arabiar bat eta beltz bat) bizitza kontatzen du. Antixenan.

> UZTAILAK 19 / 22:00

'LOS SANTOS INOCENTES' 60. hamarkadako *cortijo* bateko bizimodua (laborarien miseriak...) azaltzen ditu Mario Camus-en filmak Antixenan.

AUZOLANA

> UZTAILAK 11-12-13

ANTIXENA GAZTETXEAN
Egun osoan zehar gaztetxea garbitu eta hainbat egokitza-pen lan egingo dira. Animatu!

SOLASALDIA

> UZTAILAK 26 / 19:00

'NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO?' (Kattalin Miner)
Gizarteko hainbat gai giltzarri jorratzen dituen eleberraren inguruko solasaldia, Kattalin Miner idazlea bertan dela. Gaztetxean.

LIZARGARATE EGUNA (ABUZTUAK 27)

Abuztuaren 27an ospatuko da aurten Lizargarate Eguna. Egitaraua hauxe: **11:00** Hamaketakoa; **12:00** Herri kirolak; Ondoren, bola-joku txapelketa; **14:00** Bazkaria. Bazkal ostean irrintzi lehiaketa eta erromeria (Laja eta Lutxurdio). Iluntzean, afari-merienda eta erromeria. Uztailaren 17an jarriko dira tiketak (20€) salgai Arrano tabernan (lizargarate@gmail.com) helbidetan ere egin daiteke erreserba, abuztuaren 20a baino lehen).



MUSIKA ETA POESIA: EMAKUME ESKELETOAK

> UZTAILAK 19, Lazarraga lorategian, 19:00

2014an Donostian sortutako proiektua da Emakume Eskeletoak. Ipuinak, musika eta margolanak uztartzen ditu, eta 'Amodiozko Ipuinak' izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute Oñatin. 'Kalean' egitarauaren barruan. Maitasun mota desberdinetako lau ipuin, hangoak eta hemengoak, sakratuak ala sorginduak, zapore eta garai ezberdinetakoak, musika ezagun eta inprobisatutako nahasketa batez lagunduta.

AUZOETAKO JAIAK

Trianako jaiak: uztailak 7-9.
Madalena: uztailak 21-23.
San Lorentzo: abuztuak 4-6

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



BIBLIOPORRAK GIDA Oporrei begira, adinka sailkatutako libururik, CD eta DVD gomendagarrien gida (39 titulu) argitaratu du udal liburutegiak.

UZTAILEKO ORDUTEGIA

Astelehenerik ostiralera
10:00-13:00 eta 16:30-20:00
Larunbatetan itxita

ABUZTUKO ORDUTEGIA

Astelehenerik ostiralera
9:30-13:30. (Larunbatetan itxita).

> **ORTUZABALA** Kontsumo Taldeak botatzeko duzun baina ondo dabilen hozkailu bat gustora hartuko luke. Geu joango ginateteke bila. Tel.: 682 621 633

> **KLASE PARTIKULARRAK** Esperientzia handia duen irakasleak klase partikularrak ematen ditu udan eta urte osoan. 653 718 030 / 943 782 843 (Jaione).

Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Uztailak 6 eta 14. Abuztuak 17, 21, 23, 25, 26, 27, 29 eta 31.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Uztailak 7, 8, 9, 17, 19, 21, 22, 23, 27 eta 31. Abuztuak 2, 4, 5, 6, 8, 10 eta 14.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Uztailak 10, 11, 15, 16, 18, 20, 24, 25, 26, 28, 29 eta 30.
Abuztuak 1, 3, 7, 9, 11, 12, 13 eta 15.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Uztailak 12 eta 13. Abuztuak 16, 18, 19, 20, 22, 24, 28 eta 30.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Plaza nagusia (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Plaza zaharra

Oñatin plaza eta plazatxo ugari izan dira historian zehar. Har-tarako leku apropos eta nasai samarrak bazeuden erdigune his-torikoan, alboko beste herri batzuekin konparatuta behintzat. Hori bai, bi erreken ertzetan gauzatzen ziren eremuetan erren-ditu beharra zegoen, hots, Ubao eta Arranoaitz/Antzuelas erre-ken ibar inguruetan, alegia. Hain zuzen ere, **bi ibai gazte hauek elkartzen diren angelutik urrin barik egituratuko da gizaldiz gizaldi Oñatin izan den plaza nagusia**, zabalera eta itxura des-berdinekin.

Guk hemen XIX. eta XX. mendeetan izan dituen aldaketak eta bilakaera azpimarratuko ditugu, batez ere. Erdi Aroan Oñatin moldatze joan ziren bi kale-auzo garrantzitsuenak, Kale Zaharra eta Kale Barria, Arranoaitz/Antzuelas errekek bereizi zituen ehundaka urtetan. Goiko auzotik behekorra etor-tzeko, zubia igaro beharra zegoen oraingo plazaren erdi ingu-ruan. Errekatik San Migel parrokiaren absiderantz zegoen tar-teak nahiz Zazpibideta eta Zarateko aldera dagoen bidegurut-zeak eremu hedatu eta handi samarra osatzen zuten. Honenbestez, **parrokiaren atzealde dotorea**, hormara erantsi-tako ataripe luze batekin, **bere osotasunean ikus zitekeen**.

Plaza zahar horretan egiten ziren, besteak beste, herritarren **batzarreak** Oñatiri zegozkion gai garrantzitsuei buruzko era-bakiak hartzeko, artean ez baitzegoen udaletxerik; **eta merka-tuak** ere zabalgunetxo horretan eratzen zituzten, batez ere Zarateko etxearen aurrealdean aurkitzen zen alderdian: ingu-ru horri **Berduraren plazatxoa** deitzen zitzaion berandura arte. Errekaren ondoan baziren eraikin batzuk, 1845eko plano horre-tan ageri denez, baina era irregularrean kokatuak. Jesuiten egoi-tza eta eliza izandakoak ere zutik zirauten plazaren eskumako barrenean.




E. Pichot-en margolana, 1877.

Plaza berriaren moldatze-prozesu luzea

Azaldu dugun egoera hori XVIII. gizalditik aurrera hasi zen an-tzaldatzen poliki-poliki: lehendabizi **Antzuelas erreka estali egin zuten**, aipatutako kale-auzo nagusi bien arteko komuni-kazioa erraztuz; **eta geroago udaletxe barroko-rokokoia jaso zen Manuel Martin Carrera** arkitekto beasaingar ospetsuaren zuzendaritzapea; gure herriko ikurretako bat bilakatu den erai-kuntza bikain hau 1764 eta 1778 bitartean burutu zen. Alabaina, **eraberritze-prozesu hori moteldu egin zen**, 1792tik 1839ra bata bestearen atzetik suertatutako gerra, inbasio eta istilu uga-riak zirela medio.

Lehenengo gerrate karlistaren (1833-1839) ondoren, ez zen, egia esan, hemen giro: unibertsitatea itxi egin zuten, ekonomia lur jota zegoen, herritar askok Ameriketarako bidea hartu zuten. Baina, **1845ean Oñatik Gipuzkoarekin bat egin zuela apro-betxatuz, agian, plaza eraberritzearen egitasmoari berrekin zitzaion**. Diputazioarekin hitzartutakoaren arabera Ormaizte-gitik San Prudentziorainoko errepide berria egin zen, eta horrek premiazko hainbat obra eragin zuen hiribarruan.


Bestalde, 1846ko uztailean Isabel II.aren gobernuak orain **hiri-gintzako plan orokorra** deituko genukeen dokumentu antzeko bat prestatzea agindu zien garrantzizko herriei. Oñati ere horien artean zegoen. Udalak Bergaran bizi zen **Mariano Jose Lasku-rain arkitekto** mutrikuarrari enkargatu zion zeregin hori. Las-kurain eskola neoklasikokoa zen eta hori garbi ageri da gauza-tu zuen plangintzan. Horretarako, kontzejuak izendatutako batzorde baten laguntza izan zuen arkitektoak.



1854-55-56-57. urteak

1858. urtea

1852. urtea



ENPARANTZA 1845

Plaza nagusiaren plano arkupeen obrak hasi aurretik.

Arkupeak eraikitzeko lanak

Udalak berehala onartu zuen arkitekto mutrikuarraren proposamena eta 1847ko irailaren 26an, Laskurainen proiektuaren arabera, parrokiari itsatsitako arkupeak eraikitzea erabaki zuen. Beraz, udaletxearen pare-pare, **plazaren bestaldean burutu ziren arkupeak egiteko lehenengo obrak 1849an**, gaineko etxebizitzak hurrengo urteetan amaitu baziren ere Agustin Biain kontratista oñatiarraren ardurapean. Hartara, San Migel parrokiaren abside ederra ia ezkutatutik geratu zitzaigun. Ordukoak ditugu, ba, gaur egun Txurrukaneko arkuak moduan ezagutzen ditugunak.

Beste arkupeak, iparraldeko luzeagoak, berandutxoago modutu ziren. Erabakia 1853ko irailaren 1ean hartu zuen kontzejuak. Horretarako, ordea, hainbat etxe erosi beharra zegoen eta hori lortzeko gestioei hasiera eman zitzaion. Egitasmo honen zuzendaritza ere M. J. Laskurain arkitektoari eskatu zitzaion, baina honek, gaixorik zegoelako, proiektua utzi egin zuen 1854an. Bere ordez **Antonio Kortazar donostiarra** proposatu zuen, gerora Donostiako zabalduaren arduraduna izango zena. **Obrak urte**

bereko irailean esleitu baziren ere, **ez zituzten 1857ko udara arte bukatu**. Hori arkupeei dagokienean. **Gaineko etxebizitzak, herritar batzuk atzera egin zutelako, ez baziren 1962ra arte amaitu**. Plazaren itxura bitxia izango zen, arkupeak eginda egon arren, etxe batzuk eraiki barik zeudenean.

Enparantza berriaren birmoldaketa hau burutu ahal izateko, **hainbat etxe, eliza eta eraikin eraitsi beharra egon zen**. Besteak beste, jesuiten egoitza eta eliza izandakoak, gaur egun Pago Uso elkartearen eta Txantxiku ikastola aurkitzen diren inguru horretan; parrokiaren absideari erantsita zegoen atari-aterpe luzea; eta beste arkupeak jaso ahal izateko, ilara irregularra osatzen zuten zenbaitzuk: Berzosaren etxea, Tornas izenekoak, Irisarriren etxea, harategi zaharra edota Ballesterosena zeritzana, 1845ko planoan froga dezakezuen bezala.

Azken mende eta erdi luzetxo honetan makina bat denda, taberna, kafetegi, elkarte edota banku kokatu dira 1905etik aurrera **Foruen enparantza** izenaz bataiatu zen plaza berri honetan. Xehetasun horiek, baina, hurrengo atal batean azalduko dizkizuegu.

TURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Kontu kontari

AMAKASIA ETA ABADIA

Neguko goiz hotza izan bihar zan, jaikitteko baiño mantapeian egoiteko giro hobia egitten eben egun horreittako bat, itxuria danez, eta, hala, prisa barik, abadia eta amakasia etxian egozen, bata uhe epe- lian eta bestia sukaldian lanian. Halako baten abadia iratzarri eta, jaiki guran-edo, nagixak etaraten hasi zan eta, sukaldian eguen amakasiari halako diar bat bota otsan ohian eguen lekutik:

-Zer eguraldi egitten dau?

Eta harek hala erantzun:

-Erdi oskarbi, erdi horiaatu, berorrek sinisketan ezpadau, jagi eta begirau!



Horiaatu= hodeitu; Jagi [jai]= jaiki

Ez kikilddu, ez lotsatu

OKELIA ETA HARAGIXA

Gure herrixan bi berba honeik ondo desbardinketan dittugunez, aurrerantzian be jarraitu degigun halaxe. **Okelia** ebalixagua da jaten doguna izentaitteko. **Haragixa**, berriz, korputzekuari esaten xaugu, pertsoniarena danian, behintzat. Ikusi degigun bata eta bestiaren adibidiak:

• **Okela-dendia, okela-gizena, okela-gixarra, okela erria, okela egosixa, okela-jana:** *egin dogun okela-janagaz lepo geratu gaittuk. Okela-saldia. Okelata(ra)ko:* Ganaduen gaiñian berbetan, okelia eskuraketako hazten dana. *Larogei erralde izango dau honezkeru, eta irisko hau okelata(ra)ko kendu bihar dogu.*

• **Haragi faltsuak, haragi-etena, haragi bizixan:** haragixa estalitten dauen azala galdu ezkeru bistaraketan dana. *Haragi bizixan dakot orpua ospelakin. Mingaiña haragi bizixan geratu xakon salda irakiña eran ondoren. Aratustiak, aratosteak edo aratiztixak* iñauterixak izentaitteko.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|--------------------------|----------------------|
| 1. Atximur egin | A. Ohartu, konturatu |
| 2. Ibilli | B. Topo egin |
| 3. Botaguria izan | C. Hoztu |
| 4. Sendaatu | D. Kimatu |
| 5. Igarri | E. Imurtxi egin |
| 6. Hozkirrittu, hotzittu | F. Hitzartu |
| 7. Trikitx egin | G. Garbitu |
| 8. Iñausi | H. Goragalea izan |
| 9. Berbaatu | I. Loditu, sendotu |
| 10. Soilddu | J. Ari izan |

EUSKERAZ EGOGI

*Alavesek hiru bat galdu dau

Kirol emaitzak adierazterunzkuan, adierazo gura dogun kantidade bixen artian "eta" konjuziñua sartu bihar da derrigorrez. Orduan, "hiru bat" esan biharrian ' hiru eta bat" esan eta eskribiuko dugu. Bardin-bardin edozein kiroletako emaitzaakin. Adibidez:

- 88 **eta** 90 galdu eben Baskoniak CSKAren aurrian.
- 22 **eta** 18 irabazi otsan Bengoetxeak Irribarriari finalian.
- Bartzelonak 3 **eta** 1 irabazi xau Alaveseri.
- Bera Berak 28 **eta** 26 galdu dau Ro-Casaren kontra.

-Billatu aditz honein sinonimuak?
1e, 2j, 3h, 4i, 5a, 6c, 7b, 8d, 9f, 10g

ERANTZUNAK



Parrokixako katekistak

Gure ume-denporan eliziak eta erlijioak izugarritzko pixua euki euen. Gerra osteko urte hareik oso pietistak izan ziran eta giro haretan kristau dotriña ondo ikastiari inportantzia haundixa emuten xakon. Eskolan ez ezik, elizan be jarduten geben horretan. Kurtso osuan zihar astero faten giñan maristetatik parrokixara horretaraxe, eguazten arratsaldetan oso oker ezpanago. Nahiz eta herriko auzo batzuetan dotriña euskeraz erakutsi, kalian erderaz ikasten geben. Abade batzuk ziran arduradunak, baiña baita emakume katekista pillia be.

Gaurko argazkixan orain dala hirurogei urte pasatzoko berrogeitaka emakume katekista agiri dira, parrokixako bi abaderekin batera. Gazte samarrak dira gehixenak, baina helduak be badagoz. Batzuk luzaruan ibilli ziran lan horreittan: **Bixi Ziaurriz**, **Domingita Mokoroa** edota **Andina Arrazola** ezagunak, esaterako. Beste batzuk ez hainbeste. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Bosgarren ilaran goixenian: Juanita Mugartza; Lolita Guinea; Susana Mendizabal; Maria Anjeles Zulueta; Pilarin Arregi; Margarita Madina; Rosarito Zarraoa; Ana Mari Arregi; Anjelita Zubiagirre; Rosarito Ugarte; Maria Anjeles Guridi [?]; eta Maria Anjeles Urteaga.

Laugarren ilaran: Rosario Mugartza; Tere Enparantza; Beatriz Lizaur; Andina Arrazola; Mari Elen Otorora; Ana Mari Ugarte; Maribel Gorbea; Maria Luisa Urtzelai; honen atzian Karmen Ituarte; Arantxa Arrazola; eta Ines Mendizabal.

Hirugarren ilaran: Maria Luisa Aranburu; Ana Mari Martinez de Iturrate; Bixi Ziaurriz; Domingita Mokoroa; Migel Etxabeguren, parroko jauna; Juan Mujika abadia, katekisten arduraduna; Ana Mari Anduaga; Maribi Lubian; Eli Otorora; eta Milagros Arregi.

Laugarren ilaran belauniko: Maria Pilar Abaunz; Ana Mari Ruiz de Arbulo; Felisa Etxeberria; Satur Murga; Kontxi Igartua; eta Mari Tere Uranga.

Barrenian, lurrian jarritta: Maritxu Arregi; Maria Luisa Lizaur; Karmen Lizaur; Isabel Mugartza; Sabina Ibarrondo; Milagros Guridi; eta Tere Letamendi. Albueta neskaitillatuak eztittugu ezagutu.

Fotografia 1955 edo 1956kua izan leike, eta San Martingo zelaixan atarata egongo da, uda hasieran, kurtsuaren akaberan, ume eta guzti egitten zan jaixan.

J. E.

Argazkixa Kontxi Igartuak ekarri dosku eta informaziño gehixena berari zor xaugu. Eli Otorarak, Rexu Letamendik eta Fernando Mendigurenek be zalantza batzuk argittu doskue. Milla esker danoiri!

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak



*Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!*



GUALBI
AHOLKULARITZA

Euskadi Etorbidea, 6
Tlf.: 943 78 16 48
email: maitane@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com